

Ehun urtez artzain eta mendizaleen topaleku

100.

Abuztuaren 30ean beteko
ditu 100 urte Urbiako Fondak

Aloña-Mendiko sail berria
XAKEA





Peio Bilbao / Urbiako Fondako arduraduna

"Abuztuaren 30ean egingo dugu fondaren mendeurrena ospatzeko festa"

Urbiako baseliza inauguratu zen egun berean, 1924ko irailaren 28an, jarri zuten bertako aterpe-etxea izango zenaren lehen harria, eta hamaika hilabeteren ondoren, 1925eko abuztuaren 30ean, inauguratu zen ehun urte luzez inguruko artzainen eta mendizale askoren topalekua izan den Urbiako Fonda. Egun bereziak dira, beraz, oñatiarrok hain geure eta hain maite dugun fondarentzat. San Iñazio egunean urteroko jai handia egingo da bertan, baina abuztuaren 30ean mendeurrenako festa berezia prestatzeko asmoa dutela aurreratu digu Peio Bilbao fondako arduradunak.

Konturatu orduko, hiru urte igaro dira Fondako ardura hartu zenuenetik, emaztearekin batera. Zer moduz?

Zitzu bizian joan dira, bai, hiru urte, eta balantzea oso ona da.

Leku ederra da hau. Merezi du hona etortzeak. Gaurkoa bezalako egun eguzkitsuetan zoragarria da hau; dena berde, animaliak larreetan, txoriak kantuan... Natura bete-betean. Toki ederra,

benetan!

Egia da, bestalde, negua ere luzea izaten dela hemen; euria ari, elurra egin... hemen egon behar izaten dugu eta, agian, lau bezero etorriko dira egun osoan, baina tabernak zabalik egon behar du, azken batean konpromiso bat hartu dugulako.

Emazteak ingeniari lanetan dihardu, zeuk ere baduzu txerri haztegia baserrian, eta, hala ere, Urbiako fondaren ardura hartzera animatu zineten. Nolatan?

Aukera sortu zelako. Aurreko arduradunak uztera zihoazela jakin genuenean, ikustera etorri ginen, eta hasieran zalantza batzuk izan bagenituen ere, ez baita erraza halako erabaki bat hartzea, azkenean aurrera egi-

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

tea erabaki eta asmatu genuela uste dut. Halako leku batek bizimodua aldatzen dizu, baina oso gustura gaude. Halako leku batera etortzea gauza handia da; ez dago edozeinen esku.

Esperientziarik ba al zenuten halako lanetan?

Ni neu hamar bat urtez tabernari lanetan ibilia nintzen, eta Elgeta aldean ondo ezagutzen naute, askotan ibili izan naizelako parrilla lanetan... Saltsa askotan.

Gainera, gu baserrian bizi garenez, bageneukan 4x4 ibilgailua, erremolkea eta halako leku batean lan egin ahal izateko behar diren bestelako tresna eta azpiegitura batzuk, eta horrek ere errazten du pittin bat.

Honezkero, Fondako martxari neurria hartuta, ezta?

Bai, hasieran konparazioak egingen ziren, aurrekoek azkarrago zerbitzatzen zutela eta halakoak, baina normala zen, aurreko jabeek 25 urteko esperientzia zutelako. Hasieran, gainera, kuriositateagatik, jendea trumilka etortzen hasi zen, eta gauza guztiek dute bere muga; azken batean, hemen sukalde bat dago, bere tamaina dauka, eta langile gehiago jarrita ere, ez dago gehiago ematerik. Baina, denborarekin, poliki-poliki, ikasten eta hobetzen zoaz.

Gu ahalik eta zerbitzu onena ematen saiatzen gara, kalitatea eskainiz, etxeko produktuak erabiliz (*Basatxerri* kooperatibako txerriak, eta xerrak, berriz, hemen bazkatzen duen ganadua-rena izaten da, Arabako harakin baten bidez).

Ez da erraza izaten honako langileak aurkitzea. Gainera,



Hiru urte igaro dira Peiok Urbiako fondako ardura hartu zuenetik

» Uztailaren 31n, San Iñazio egunean, Urbiako festa ospatuko da, urtero lez, eta gure asmoa da, abuztuaren 30ean antolatzea Fondaren mendeurreneko jaia. Musika eta jai girorik ez da faltako eta, horrez, gain, argazki erakusketaren bat eta oroigarriren bat jartzeko asmoa ere badugu

saiatzen gara beti langile euskaldunak edukitzen, Urbiak euskalduna izaten segi dezan, eta, handik edo hemendik, lortzen dugu.

Zein egutegi/ordutegi dauka fondak?

Uda partean, ekainaren 14tik urriaren 12 ingurura arte (eguraldiaren arabera) aste osoan dago zabalik; astegunetan, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte, eta asteburuetan, 8:30etan hasita. Ordu horietan guztietan sukaldea martxan izaten dugu. Taberna bera, egun batzuetan berandutxoago ixten dugu, gu esna gauden bitartean.

Azaroan itxita egoten da fonda —gure opor eguntxoak—, eta neguan, asteburu eta jai egunetan (Gabonak, Astea Santua, zubiak...) irekitzen dugu.

Ba al dabil mendizalerik Urbian?

Bai, pozik gaude eta, gainera, azpimarratu nahi nuke beti errespetu handiz jokatzeko dutela, eta jendeak asko laguntzen digu; kritikaren bat dagoenean, modu onean esaten digute, eta gu zuzentzen saiatzen gara.

Logela zerbitzua emateko asmorik ba al duzue?

Nahiko genuke, baina obra eta inbertsio handia egin behar da araudi berrira egokitzeko, eta, oraingoz behintzat, ezin gara horretan sartu. Partzoneriak parte hartu behar luke eta, momentuz, behintzat, geldirik dago gai hori.

Fondaren mendeurrena ospatzeko ekitaldirik antolatu behar al duzue?

Bai, noski. Aurrena, San Iñazio eguneko festa ospatuko da uztailaren 31n, urtero lez, eta gure asmoa da, abuztuaren 30ean, larunbata, antolatzea mendeurreneko jaia. Ekitaldi handiegirik ere ezin da antolatu, hemen eguraldiaren menpe gaudelako, eta oraindik ez dugu egitaraua zehaztu, baina ez da faltako musika eta jai girorik. Argazki erakusketaren bat antolatzeko asmoa ere badugu, eta oroigarri edo plakaren bat ere ipiniko dugu, ziurrenera. Aurrerago zehaztuko dugu egitaraua.

Aurrera jarraitzeko ilusioz?

Bai, jakina!. Hogeita bost urterako hartu genuen fonda, eta aparteko arazoren bat sortzen ez bada, hemen izango gara, gustura, zerbitzua emateko prest. Beraz, animatu egin nahi ditut oñatiarrak eta mendizale oro Urbiara eta inguru zoragarri hauetaz gozatzera.

(Hurrengo orrira)



JUANJE MARGOAK
627 818 247



ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



◀ Bi emakume, Justa eta Maritxu Etxezarreta izan daitezkeela uste dutu, Urbiako fondara begira Zabalaiz aldetik begira

ARGAZKIAK

Photo Araba eta Gure Gipuzkoa argazki funtsak

Urbiako Fonda 100 urteko historia

1925eko abuztuaren 30ean inauguratu zen Urbiako fonda, bertako baseliza bedeinkatu eta hamaika hilabetera, garai hartan Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoko presidentea zen Segurako alkatearen proposamena onartu ondoren, halako inguru zoragarrira joaten ziren mendizale ugarien behar eta premiei erantzuna eman ahal izateko helburuarekin. Telefono publikoa ere orduantxe ipini zuten fondan bertan, Aizkorriko mendikate zabalean zegoen bakarra.

Inaugurazio eguneko argazkirik ez dugu aurkitu, baina Arantzazuko artxibategiko arduradunek eskuratu diguten Urbiako meza-liburuko oharrean irakur daitekeenez, 3.000 pertsona inguru batu ziren Urbiako zelaietan. Bertan izan omen ziren, besteak beste, gobernu ordezkaria eta Segura nahiz Oñatiko alkateak, eta Deogracias Igartua Arantzazuko goardianak gidatu zuen elizkizunaren ostean, alberge-etxea bedeinkatu zen eta hainbat ospakizun (ezpata-dantzariak, aureskua, globo jaurtiketa...) izan omen ziren bertan.

Aurreneko urteetan Partzuergoa bera arduratu zen fondaren kudeaketaz, errentan utzita, baina handik urte gutxira, 1933ko abenduan, Segurako udaletxean burutu zen bilkura berezian, fondaren salmentaren komenientzia jarri zuten mahai gainean, Partzoneriako komunitateak bizi zuen egoera ekonomiko larri hartatik irteteko neurri gisa.

Gaia aztertu ondoren, Urbiako ostatua enkante publiko bidez saltzeko erabakia hartu zuten, eta deialdia birritan hutsik geratu ostean, azkenik Zeraingo seme Joaquín Muñoak erosi zuen 1938ko ekainaren 14an, 13.125 pezetaren truke. Lursailak, baina, eraikina dagoen tokikoa, eta baita etxe inguruak ere,



◀ Ezkerrean, Pedro Etxezarreta eta Hilari Muñoa senar-emazteak Urban, 1944an. Beraiek izan ziren gerora Urban jardun duten artzain gehienek guraso eta aiton-amonak.

▼ Behean, gizon taldea Urbiako fonda atarian, 1925 aldera





Ezkerrean, emakume taldea fonda aurrean, duela 75 bat urte. Zutik, ezkerretik hasita lehena, Justa Etxezarreta, eta bere ahizpa Maritxu, harri gainean eserita. Eskumako argazkian, Pedro Etxezarreta zutik, eta Santi Mujika, mutikoa zela, behor gainean.

Partzuergoarenak izaten jarraituko zuen.

Egun berean, Joaquin Muñozak Zegamako Pedro Etxezarreta jaunari saldu zion fonda, gerora urte askotan bertako jabe izan ziren Justa eta Martinen aitari, alegia, prezio berean.

Hogei urte beranduago, Segurako udaleko agirietan ikus daitekeen moduan, 1958ko abenduaren 23an, Pedrok bere alaba Justa Etxezarretari utzi zion, eta hamalau urte beranduago, 1972ko urtarrilaren 31ko eskrituran ikus daitekeenez, azken honek Ameriketatik itzuli berria zen bere anaia Martini laga zion.

GARAI ILUNAK

Martin Etxezarretak hogeita bat urte egin zuen fondako buru, harik eta 1993ko urtarrilean Patxi Alustiza legazpiarrari saldu zion arte. Orduantxe hasi ziren Urbiako ostatuaren inguruko liskar eta tira-birak Partzuergoko zuzendaritza eta Alustizaren artean. Zazpi hilabete beranduago, uztailaren 28an, Ertzaintzak, Partzoneriaren agindua betez, prezintatu egin zuen fonda. Nonbait, Alustizak Partzoneriak baino askoz eskaintza hobea egin zion Martini, eta bien arteko salerosketa adostu zuten. Partzoneriak, baina, Atzera-Eskuratze eskubidea erreklamatu zuen, alegia, lehendabiziko eroslea izateko eskubidea zeukala, eta epaitegira jo zuen.

Alustiza, bere aldetik, fonda erosi orduko hasi zen ostatuak behar zituen konponketa lanak egiten (sukaldea, komunak, ate bikoitza, logelak...). Partzuergoak legez-kanpokotzat jo zituen berritze lanak uztailaren 16ko batzar berezian, eta hamar egun beranduago itxi zuten fonda, Urbiako jai egun handiaren bezperatan.

Lau urtez egon zen itxita. Tamalez, tarte horretan Alustiza zendu zen, gaitz larri baten ondorioz, eta, azkenean, haren seme Jon Anderrek ireki zuen fonda, 1997ko uztaillean, Partzuergoarekin 50 urterako kontzesioa hitzartuta. Baina Alustizatarrek ez zuten luzaroan iraun, eta 1999ko urtarrilean Ruper Altzelai eta Mikel Altube oñatiarrak hartu zuten ostatuaren ardura. Poliki-poliki, fonda berpiztea lortu zuten, lan handia eginez eta zerbitzu bikaina eskainiz. Hauek ere zenbait hobekuntza lan egin zituzten, eta beraien ardurapean egon zen ostatua, hogeita hiru urtez, harik eta, osasun arazoak tarteko, fonda utzi eta emakida esku-aldatzea erabaki zuten arte. 2022ko uztailaren 23az geroztik Peio Bilbao eta Naiara Romatet senar-emazte elgetarrek kudeatzen dute fonda. ■




Goian, Martin Etxezarreta (22 urte eman zituen fondako arduradun) eta Patxi Alustiza. Behean, Ruper, Aritz, Kepa eta Mikel. Altzelai-Altubetarrek 23 urtez izan zuten fondako ardura.



Gaurkoaren oso bestelako itxura zuen fondak hasieran.

Smartphone-aren jabetzaren eboluzioa Oñatin 11 - 14 urteko (LH6 - DBH2) nerabeen artean



(*1) LH5 - LH6 tarteko Elkar Heziko nerabeen datuen faltan

(*2) Data historikoetarako Txantxiku ikastolako DBH3 eta 4 ko nerabeei smartphone zer urtetan jaso zuten galdetu diegu eta eratzunarekin datu historikoak extrapolatu digutu

Smartphonearen jabetza 33 puntu jaitsi da Oñatin, 11-14 urteko nerabeen artean

*altxa burua
Oñati!*

'**Altxa Burua-Oñati**'k egindako inkestaren arabera, 11 eta 16 urte arteko nerabeen gurasoen **%94,5** dago kezkatuta gai honen inguruan, eta **%64,2**k uste dute seme-alabek 16 urtetik aurrera jaso beharko luketela smartphonea

— *Adolescencia* telesaila, eta ETBko beste saio batzuek, adibidez— beren inpaktua izan dutela, gurasoak mobilizatu egin direla, eta horren ondorio direla datu positibo hauek".

"Garrantzitsua da, batetik, DBH-1eko gurasoak bidea erakusten ari direlako LH-6ko gurasoei; eta, bestetik, masa kritiko bat sortu delako DBH-1eko gurasoen artean, izan ere, maila honetako gazteen 42 gurasok konpromisoa hartu baitute hurrengo hamabi hilabeteetan smartphone-erik ez emateko beraien seme-alabei, eta horrek garrantzitzen du inpaktu hori DBH-2n ere sumatuko dela hurrengo urtean", gaineratu

Mugikorra duten 11 eta 14 urte arteko nerabeen kopuruak 33 puntu egin du behera. Hori da **Altxa Burua-Oñati** taldeak LH-5 eta DBH-4 adin tarteko seme-alabak dituzten gurasoen artean egindako inkestatik ondoriozta daitekeen datu nagusietako bat. Abenduan egin zen inkesta, —437 gurasoren erantzunak jaso zituzten—, eta urtebete lehenago egindako inkestako datuekin alderatuz, garbi ikusten

da beherakada nabarmena gertatu dela smartphonea duten gaztetxoek kopuruan, batez ere 12 eta 13 adin tartean. Hala, 2023an DBH-1eko ikasleen **%73k** zeukaten mugikorra, eta 2024an **%48k** (**%34ko** jaitsiera); eta DBH-2koen artean, 2023an **%92k** zuten telefonoa, eta 2024an **%77k** (**%16** gutxiago).

Datu horiek espainiar estatukoekin konparatzen badiugu, alde handia dago, goiko

grafikak erakusten duen moduan. Estatu mailan ere jaitsiera txiki bat eman da, baina Oñatin **%28,5** txikiagoa da smartphonea duten nerabeen kopurua.

"Datu onak dira, eta erakusten digute bide onean goazela", adierazi digute duela urte eta erdi sortu zen **Altxa Burua-Oñati** taldeko kideek. "Gurasoekin egiten ari garen lanak, eta gizarte mailako beste ekimen batzuek

dute *Altxa Burua*-koek. "Gure helburua da olatu hori handitzen jarraitzea".

SMARTPHONEA ETA SARE SOZIALAK

Inkestak argi erakusten duen beste datu bat zera da, DBH-3 eta 4 mailetako gazteen %98k daukala mugikorra, eta Altxa Burua taldekoek badakite oso zaila edo ia ezi-nezkoa dela horiei telefonoa kentzea une honetan. "Horregatik, gure lana enfokatu edo bideratu nahi dugu, bereziki, oraindik smartphonerik ez duten gazte eta gurasoengan; laguntza edo bitartekoak eskaini nahi dizkiegu, gurasoak koordinatu, ahaldundu eta, ahal den neurrian, mugikorra seme-alabei emateko adina atzeratzeko".

Jonathan Haidt adituak *La Generación Ansiosa* liburuan proposatzen du mugikorraren jabetza 14 urtera arte atzeratzea, eta sare sozialen erabilera 16ra; "Izan ere, ez dauka zentzurik guztiz libre dagoen smartphone bat ematea, nahi dutena instalatzeko. Horrek txoke-efektu ikaragarria eragin dezake nerabeengan".

"Halakorik ez gertatzeko, edo horren inpaktua arintzeko, onena hezkuntza da, eta berba egitea gure seme-alabekin gai hauen inguruan. Baina, horrez gain, gaur egun filtro edo erreminta ugari daude gurasoen esku, nerabeentzat egokiak ez diren edukiak mugatzeko, besteak beste", argitzen dute Altxa Burua taldekoek. "Guk beti esaten dugu, ez gaudela mugikorraren edo teknologiaren erabilaren aurka. Baina tentuz jokatu behar dugu. Smartphoneak tresna oso botereitsuak dira, gauza askotarako lagungarriak dira, baina, hain positiboak ez diren aplikazio eta edukiak ere badituzte, eta horietako asko sare sozialekin lotuta daude. Horregatik, egokia iruditzen zaigu sare hauen erabilera 16 urtera arte



'Gurasoen %94,5 dago kezkatuta gai honekin'


Altxa Burua-Oñatik egindako inkestak emandako beste datu esanguratsu bat zera da, 11-14 urte arteko gurasoen %94,5 (aurreko urtean baino 1,9 puntu gehiago) dagoela kezkatuta seme-alabek eta smartphonearen erabilaren inguruan. Gurasoen %64,2k uste dute seme-alabek 16 urterekin edo ahalik eta beranduen jaso behar luketela mugikorra; %22,3ren ustez 14/15 urte adin egokia da, eta %13,5ek ez daukate garbi.

atzeratzen ahalegintzea".

KONTZIENTZIAZIO LANA

Asmo horrekin, kontzientziazio lana egiten jarraituko du Altxa Burua-Oñati taldeak, udalarekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean, hitzaldiak eta bestelako ekimenak antolatuz. Aurten, gazteen buru-osasuna eta pornografiari buruzko bi hitzaldi antolatu dituzte, eta oso harrera ona izan dute.

"Gure lehentasunak dira, smartphonea emateko adina ahalik eta gehien atzeratzea, eta mugikorra emateko momentua iristen denerako, erremintak ematea gurasoei eta gazteei, prest egon daitezen. Ildo horretan, inportantea iruditzen zaigu gurasoak elkartzea, gogoeta egitea, eta, ahal bada, elkarrekin protokolo batzuk adostea mugikorraren erabilaren inguruan". Horregatik, 'Altxa Burua-Oñati' taldekoek dei gonbita luzatzen diete gai honen ingurua kezkatuta dauden gurasoei taldera hurbiltzera. ■



KONPROMISOA. Goiko grafikoak erakusten duen moduan, bereziki DBH-1 eta DBH-2ko ikasleen artean jaitsi da mugikorra jabetzan duten nerabeen kopurua. Gainera, azpimarratzekoa da, DBH-leko 42 gazteren gurasoek "hurrengo 12 hilabeteetan seme-alabei smartphone-rik ez emateko" konpromisoa hartu dutela.



Oso harrera ona izan dute Altxa Burua-Oñati taldeak, Udalarekin eta herriko ikastetxeekin batera antolatutako hitzaldiek



San Juan kale eta Santa Ana komentu inguruak 1980ko hamarkadan.

'Maitasun istorio bat'

Iñazi Garaikoetxea eta Tomas Ugarte senar-emazteak egun berean hil ziren duela 44 urte, eta herriarentzat utzi zuten beraien etxebizitza, gaur egun Pake Leku elkartearen egoitza dena



Ezkerrean, 'Mallu'tarren etxea eraberritzen. Eskuman Tomas eta Iñazia senar-emazteak 1981ean. Informazio gehiago, pakeleku.blogspot.com helbidean



Jubilatuaren egunaren harira Pake Leku antolatutako ekitaldien artean Iñazio Irizar eta Carlos Agirrebengoaren hitzaldia ('Maitasun istorio bat') entzuteko aukera izan genuen ekainaren 10ean. Oñatin 1968az geroztik ospatzen den Jubilatuaren Egunaren eta Pake Leku elkartearen historia eta bilakaerak azaldu zituzten, eta han esandako zenbait kontu eta datu orri hauetara ekartzea erabaki dugu, askorentzat ezezagunak izango direlakoan.

GIZONEZKOENTZAT SOILIK

Esan bezala, 1968ko urriaren 20an egin zen aurreneko aldiz, Udalak antolatuta, herriko jubilatuari eskainitako omenaldia, Reyes Korkostegi alkate zela, eta azpimarratzekoa da, gizonezkoek soilik parte hartu zutela.

Ekitaldi haren arrakasta ikusirik, urtero egiteko ohitura finkatu zen, eta 1970eko hamarkadaren hasieran batzorde bat eratu zen, urte osoko jarduerak antolatzeko asmoz. Horretarako, Kale Zaharra eta Lizaur arteko bidegurutzean eraiki zen etxe berriaren behe-solairua alokatu zen, eta bertan gizakume eta emakumeak egin ziren bazkide. Egoitza haren inaugurazio egunean, 1973an, Reala eta Athletic-eko beteranoen arteko futbol partidua jokatu zen Azkoagainen.

DEMOKRAZIA ALDIKO LEHEN OMENALDIA

Hurrengo urteetako jubilatuaren omenaldiak egoitzan bertan egin ziren, batzordeak antolatuta, modu xumean. baina 1979ko udal hauteskundearen ondoren, udalak bere gain hartu zuen antolakuntza, eta aurreneko Jubilatuaren Eguna Sancti Spiritus unibertsitateko klaustroan egin zen. Azpimarratzekoa da, opari banaketa eta dantzarien saioaren ostean, luntxa egin zela bertan,



Ezkerrean, 1968an egin zen Oñatiko jubilatuen lehen omenaldiko irudia. Behean, ezkerrean, 1979an, demokrazia aldia hastearekin batera, unibertsitate zaharrean burutu zen lehen Jubilatuen Eguneko irudia. Eskuman, Pake Leku elkarte berrituaren inaugurazio ekitaldia, 2002an.

tala eta, gerora, San Martin egoitza bilakatu zenarentzat. Azkenean, garai hartako Gipuzkoako gotzaina zen Jose Maria Setienekin kontsultatu zuten, eta honek erantzun zien bikotearen nahia garbia zela, hots, Egoitzak ordezkatzeko zuela herria.

Oñatiko udala San Martin egoitzako fundazioko kide zenez, 1982ko otsailaren 11n egindako bilkuran herentzia onartzea erabaki zuen aho batez, eta etxea eraberritu ostean, bertan egokitu zen herriko jubilatuentzako egoitza berria. Kale Zaharreko lokala herriko alargunen elkartearen egoitza izatera pasa zen.

2001ean San Juan kaleko 2 zenbakia iritsi zuen; Zubikoa kiroldegia zabaldu ostean, bertan ospatu ziren hurrengo urteetako Jubilatuen Eguna, musika bandaren kontzertu, bazkari, dantzaldi eta guzti. Baina, apurka-apurka parte hartzea apalduz joan zen eta, hala, 2022an, San Migel parrokiako meza ostean, omenaldia eta luntxa parrokian bertan eta klaustroan egiten hasi ziren, gaur arte.



herriko elkarte gastronomiko guztien artean prestatutako pintxoekin.

Hurrengo aldaketa nagusia 1983an iritsi zen; Zubikoa kiroldegia zabaldu ostean, bertan ospatu ziren hurrengo urteetako Jubilatuen Eguna, musika bandaren kontzertu, bazkari, dantzaldi eta guzti. Baina, apurka-apurka parte hartzea apalduz joan zen eta, hala, 2022an, San Migel parrokiako meza ostean, omenaldia eta luntxa parrokian bertan eta klaustroan egiten hasi ziren, gaur arte.

PAKE LEKU ELKARTEAREN EGOITZA

Goian esan dugun moduan, Kale Zaharra 29 zenbakiko behe solairuan egon zen herriko jubilatuen lehen egoitza, 1973tik aurrera, eta 1982an aldatu zen gaur egungo kokalekura, San Juan kaleko 2 zenbakira, 'Mallu'-tarren etxea izandakora. Eta hemen kokatzen da artikulua izenburuak aipatzen den 'maitasun istorioa'.

Kontua da, egun Pake Leku elkartearen egoitza den San Juan kaleko 2 zenbakian Iñazia Garaikoetxea Egaña eta Tomas Ugarte Intxausti 'Mallu', 1952-1953an Oñatiko alkatea izandakoa, bizi zirela, ondorengo barik.

Eta, bat-batean, 1981eko ekainaren 7an, bihotzekoak jota hil zen Iñazia, iluntzeko zortzietan, 80 urte zituela. Eta handik bi ordura, gaueko hamarretan, Tomas zendu zen, 85 urterekin, penaz-edo, bihotzekoak jota, baita.

Testamentua egin gabe zendu ziren, eta horrelako kasuetan Oñatin ohikoa zen

moduan, On Benigno Iñarra apaizaren esku utzi zuten etxearen eta gainerako ondasunen ardura. Garai hartan Santa Ana komentua zegoen 'Mallu'-tarren etxe parean, eta bertako kapilaua zen Martin Astaburuaga fraidea zen, aldi berean, Iñazia eta Tomasen konfessoreak. Eta Martinek jasoa zuen bere oharretan, inoiz esan ziotela beraiek hildakoan dena "herriarentzat" utzi nahi zutela.

Zehaztasun gehiagorik ez zegoenez, batzuk ulertu zuten ondasunok elizarentzat izan zitezkeela, eta beste batzuk, berriz, behartsuen ospi-

Gaur egun 1.200 inguru bazkide ditu Pake Lekuk —12 euroko kuota ordaintzen dute urtean, 86 urte bete arte— eta makina bat tailer, ikastaro, hitzaldi, bidaia eta bestelako burutzen dira urtean zehar. ■



Bi emakume omenduak, aurreneko aldiz

Ekainaren 15ean ospatu zen herriko jubilatuen eguna. Azken urteetako ohiturari jarraituz, mezaren ostean aldare aurrean egin zitzaizen omenaldia herriko erretiratuen bi ordezkariak. Aurten, lehen aldiz, bi emakume izan zuten ohore hori: Margarita Olalde Belokik eta Jesusa Beloki Iraolak. Ondoren bazkaria egin zuten klaustroan.

2023-2024 Partaidetzazko Aurrekontuen KONTU EMATEA

> 2023-2024ko Partaidetzazko Aurrekontuetan herritarrek aukeratutako 9 proiektuak burututa edo abian daude, jada.

2022an abiatutako partaidetzazko aurrekontuen prozesua amaierara iritsi da. Udal aurrekontuetako 500.000 euro bi urtetan banatuta (2023 eta 2024) zertan inbertitu herritarrek erabakitzea zen prozesuaren helburua, eta prozesuan zehar aurkeztu ziren proposamenen artean herritarrek lehenetsitako bederatzi egitasmoak burututa edo abian daude, jada. Ondoko orrietan ikus daitekeen moduan, proiektu gehienak exekutatuta daude, bi izan ezik. Alde batetik, plaza ondoko jolas lekuko zorua berritzeko proiektua modu integralagoan osatzea erabaki du Udalak, eta lanketa horren ondorioz atzeratu egin da, baina, dagoeneko lanak esleitura daude eta uztailean hasiko dira. Bestalde, 8-14 urteko gazteen aisialdirako elementuak jartzeko proiektua Etxaluzeko parkea berritzeko egitasmoa orokorrean txertatu da, eta lanketa berezia eskatu du, baina dagoeneko abian da lizitazio prozesua.



PLAZAKO KIOSKOA ETA FRONTOIA ARTKEO ZOLADURA BERRITZEA ETA BERDEGUNEAK EGOKITZEA

BOZKAK: 440 (%53,86)
AURREKONTUA: 121.000 €
ERREALA: 556.519 € (+BEZ)

Proiektuari era soltean heldu barik, modu integralago batean esku-hartzea erabaki zen. Udako sail ezberdinen arteko hausnarketari esker, proiektu osotuagoa garatu da, eta kiosko ingurua, lorategiak, frontoira arteko zorua eta azoka gunerako sarreran esku hartuko da. Europako NEXT funtsekin osatu da aurrekontua. Lanak esleitura daude eta uztailean hasiko dira.



BEREZAO AUZOKO PARKEKO MAHAIK ETA JARLEKUAK KONPONTZEA

BOZKAK: 421 (%51,53)
AURREKONTUA: 5.400 €
EXEKUTATUTAKOA: 1.445 € materialetan + udal brigadako 2 langile 7 egunez

Berezaoko parkeko bederatzi mahai eta beren jarlekuak berritu dira: harrizko oinarriak konpondu eta trabesei tratamendua eman zaie. 2023ak gauzatu ziren berritze lanak, aurreikusitako epean.

IRAILETIK AUERRERA PROZESU BERRIA

Irailean Partaidetzazko Aurrekontuak 2026-2027 prozesua jarriko du abian, udal aurrekontuetako **600.000** euro zertan inbertitu herritarrek erabaki dezaten. Iraileko aldizkarian azalduko ditugu xehetasunez prozesu berriak izango dituen fase ezberdinak. Dena den, prozesuaren gardentasuna garrantzitzeko **BERME TALDEA** eratu behar da, eta nahi duten herritarrek parte hartu ahal izango dute talde horretan. Ikusi deialdia 12. orrialdean.



KOMUN PUBLIKOA JARTZEA UR JOLASEN PARKEAN, ELTZIA PAREAN

BOZKAK: 402 (%49,20)
AURREKONTUA: 78.700 €
EXEKUTATUTAKOA: 45.310 € + udal brigadako lana (obra zibila eta zoladura)

Ur Uhinak jolas parkearen aldamenean komun publiko funkoa ipini da, urte osoan zehar erabiltzeko moduan. Instalazio-txabolaren ondoan kokatu da, argindar, ur hornidura eta saneamendu azpiegiturak bertan aurrez prest zeudelako. 2024ko lehen seihilekoan burutu dira lanak.



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKER.EUS






HERRITARREK ENERGIA KOMUNITATEEN SORRERA UDALAK ERRAZTEA

BOZKAK: 369 (%45,17)
AURREKONTUA: 40.000 €
EXEKUTATUTAKOA: 41.293 €

2024ko maiatza-ekainean herritarren aktibaziorako sentsibilizazio zikloa burutu zen, eta irailetik aurrera aktibaziorako mekanismoak (Goienerrak eta Aisek gidatutako 9 saio) egin ziren Oñatiko Energia Komunitatearen sorrera sustatzeko eta herritarrak alor horretan ahalduztzeko. Kooperatibaren sorrera prozesua abian da.



JOLAS PARKEETAN 8-14 URTEKO GAZTEENTZAKO ELEMENTUAK JARTZEA

BOZKAK: 303 (%37,09)
AURREKONTUA: 200.000 €
ERREALA: 224.330 € (+BEZ)

Lanen esleipen prozesua abian dago. Behin hau ebatzi eta lanak esleitutakoan, obrak udazkenean egiten hasia aurreikusten da Etxaluze osteko parkean, 'Parke Gorrixa' izenez ezagutzen den gunean.



HAINBAT BIZIKLETA APARKALEKU JARTZEA HERRIAN ZEHA

BOZKAK: 294 (%35,99)
AURREKONTUA: 6.100 €
EXEKUTATUTAKOA: 6.600 €

Olakua eta San Lorentzo auzoetan hainbat lekuran jarri dira bizikletentzako aparkalekuak, baita Errekalden, Musika Eskolan, Natur Eskolan, Ugarkalde auzoan eta Eltzian ere. 2024ko lehen seihilekoan egin ziren lanak.



KIROLDEGI AURREALDEKO JOLAS PARKEAN ATERPEA ETA ITURRIA JARTZEA

BOZKAK: 268 (%32,80)
AURREKONTUA: 30.300 €
ERREALA: 35.882 € (+BEZ)

Zubikoa kiroldegia eta Txantxiku ikastolaren artean dagoen jolas parkean estalkia egokitu da lurpeko parkinerako sarrerako egiturari atxikita, eta iturria ere egokitu da, parkean bertan. Estalkiaren egitura jarrita dago eta azken ukituak ematea baino ez da falta.



ITURRIGORRIKO ZELAIK GARBITZEA

BOZKAK: 257 (%31,46)
AURREKONTUA: 3.500 €
EXEKUTATUTAKOA: Zeharkako gastuak: udal langileen lana, traktorearen eta amortizazio gastuak.

Udal brigadako langileek egin dituztelaturrigorriko zelaiak garbitzeko lanak, udalaren traktore eta belarra/sastrakak mozteko makinak baliatuz. 2023an burutu ziren lanak, aurreikusitako epean.



SAN MARTINGO ZUHAIZTIAN KALISTENIA PRAKTIKATZEKO ELEMENTUAK JARTZEA

BOZKAK: 148 (%18,12)
AURREKONTUA: 15.000 €
EXEKUTATUTAKOA: 21.800 €

Altuera ezberdinetako barrak eta elementuak erabilia, ariketa fisikoa eta indar ariketak egiteko adin tarte ezberdinei zuzendutako Kalistenia parkea egokitu da San Martin auzoan. Zoru berezia ipini da bertan. 2024ko lehen seihilekoan burutu ziren lanak.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2026-2027

HERRITARREN BERME TALDEA

OSATZEKO DEIA

Oñatiko udalak partaidetzazko aurrekontuen prozesu berria abiatuko du 2025eko irailetik aurrera. Honen bidez, 2026 eta 2027 urteetako aurrekontuetan 600.000€, aurreko edizioetan baino 100.000€ gehiago, zertan inbertitu erabakitzeak aukera izango dute herritarrek.

Prozesu honetarako mahai politikoa eratuta dago jada, ordezkaritza daukaten bi alderdietako kideekin. Aurreko bi edizioetan bezala, prozesuak fase ezberdinak izango ditu (proposamenak egin, lehenetsi, baloratu eta bozkatu). **Hala ere, hauen inguruko informazioa eta xehetasunak irailean jakinaraziko dira.** Oraingo deialdiaren helburua prozesu osoan zehar jarraipena egingo duen herritarren taldea, Berme Taldea deritzona, osatzeko gonbidapena egitea da.

BERME TALDEA, HERRITAR BOLUNTARIOZ OSATUA

Aurten ere, **herritarrez osatutako Berme Taldea eratu nahi du udalak**, prozesuaren kalitatea eta gardentasuna bermatzeko asmoz. Baina, oraingoan, berritasun modura, **talde hau herritar boluntarioekin osatuko da. 8 bat pertsonakoa izatea aurreikusten da.**

Berme Talde honen funtzioa prozesuan zehar hartzen diren erabakiak zuzen eta egoki (aurrez zehaztutako irizpideekin) hartu direla egiaztatzea izango da. Prozesua 2025eko irailean hasiko da eta 2026ko otsailean bukatu.

Bide horretan, talde honek bost bilera egitea aurreikusten da. Berme taldeko kide gisa izena ematen duenak bilera guztietara etortzeko konpromisoa hartuko du:

1. Berme Taldea osatu, prozesua ezagutu eta eginbeharrak zehaztu. Irailean
2. Herritarrek egindako proposamenak jasotzeko fasearen inguruko kontrastea egin. Urrian
3. Proposamenen bideragarritasun teknikoaren kontrastea egin. Abenduan
4. Proposamenen bozketa arauak zehaztu bezala egin dela ziurtatu. Urtarrila amaieran
5. Prozesuaren balorazioa. Otsailean



2026-2027
partaidetzazko
aurrekontuetan
erabiliko den
logoa.

» Aurten ere, herritarrez osatutako Berme Taldea eratu nahi du Udalak, prozesuaren kalitatea eta gardentasuna bermatzeko asmoz. Baina oraingoan, berritasun modura, talde hau herritar boluntarioekin osatuko da.

Oharra: Berme Taldeko kide **izena emateak** ez du automatikoki kide izatea esan nahi. Izan ere, taldea heterogeneoa izan beharko da, taldekideen ezaugarriek Oñatiren errealitate sozialari erantzun beharko diete ahal bezain beste. Hori dela eta, taldea osatzerakoan aniztasuna hartuko da kontuan, hainbat parametroren arabera: adina, sexu-generoa, bizitokia (landa eremua, herrigunea...) eta jatorria. Hala ez bada, ez da talderik osatuko.

Izen-ematea (uztailaren 24ra arte): berme taldeko kide izateko interesa izanez gero (edo informazio gehiagorako), bide hauek daude Partaidetza sailarekin harremanetan jartzeko: partaidetza@onati.eus / 943780411 (126 luzapena) edo 688 679 460 zenbakira deitu edo idatzita.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIEN ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiestui Kortabarria
Irakaslea

Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57

20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com

www.4sgoiena.com

'Izan parte, hartu hitza' gida argitaratu du Udalak

Oñatiko herritarren parte-hartzea, lankidetzak publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko Udal Ordenantza laburbiltzen da bertan

Partaidetzaren kultura sustatzeko, lankidetzak publiko-sozialerako bitartekoak arautzeko, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko dituzten tresnak eta bideak zehazteko eta, azken batean, kalitate demokratikoa areagotzeko asmoz, 'Oñatiko herritarren parte-hartzea, lankidetzak publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko ordenantza' onartu zuen udalbatzak, aho batez, orain dela hiru urte.

Hainbat orrialde dituen dokumentu mardula da, eta, horregatik, orain, ordenantza horretako puntu eta edukiak modu ulergarri eta erakargarrian laburbiltzen duen gida argitaratu du Udalak. "Hasieratik izan genuen halako gida bat ateratzeko asmoa eta gogoia, baina ez da erraza hain mardula den ordenantza bat laburbiltzea modu erakargarrian, astuna gertatu barik. Horregatik, buelta asmo eman behar izan dizkiogu, eta, azkeneko, gida txukun bat atera dugula uste dut, eduki nagusiak laburbiltzen dituen, eta erraz irakurtzen



Anik Zubizarreta, udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioa batzordeko burua, gidarekin

» Etxe guztietara banatuko da gidaren laburpena jasotzen duen esku-orria, baina gida bera eskuratu nahi duenak udaleko HAZ bulegoan eska dezake, euskaraz edo gazteleraz

» Partaidetzaren kultura sustatzeko eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeko dituzten tresnak eta bideak jasotzen dira, besteak beste, Udal Ordenantzaz

dena", azaldu digu Anik Zubizarretak, udaleko Partaidetza saileko buruak.

ZERGATIK GIDA HAU

"Udalak ordenantza mota asko ditu, baina esku artean dugun hau, parte-hartzea eta lankidetzak publiko-sozialari buruzkoa, bereziki herritarrei zuzendutako araudi bat da, bertan jasotzen delako, besteak beste, herritarrek nola eragin dezaketen gai publikoetan, zein eskubide eta berme dituzten, nola jar daitekeen martxan herri-ekimenak edo udal mailako kontsultak, eta beste gai asko. Beraz, uste genuen zor geniola herritarrei halako gida bat, ordenantzako puntu nagusiak laburbiltzen dituen", azaldu digu Zubizarretak, eta gustura gaude emaitzarekin.

Datorren astean zehar herriko etxe guztietara banatuko da esku-orri bat, gidaren laburpena, nolabait esatearren, gidak dakarrena modu eskematikoan azaltzen duena. Baina gida bera osorik eskuratu nahi duenak, udaleko HAZ zerbitzuan eskatu ahal izango du, euskaraz edo gazteleraz, eta udalaren webgunean ere kontsultatu ahal izango da.

Gogoratu, gainera, gidaren edo ordenantzaren inguruko edozein zalantza izanez gero, udaleko Partaidetza arlora jo dezakezuela: partaidetza@onati.eus. "Herritarrengana hurbildu, ordenantza hau badagoela gogorarazi, eta erabilgarria izango den gida bat egin nahi izan dugu, eta gustura gaude emaitzarekin", adierazi du Zubizarretak. ■

● OÑABIKE
est. 95

Etxaluzeko parkea berritu, eta Mendiko kale nahiz San Lorentzoko 11. areako urbanizazioa berritzeko lanak esleipenera atera ditu Udalak

> **1,5 milioi** euroko aurrekontua dute hiru proiektuen artean > Horrenbestez, udaleko Lurralde Antolamendu sailak aurtengorako aurreikusten dituen inbertsio guztien (4,9 milioi) **%83** legoke baimenduta

Ekainean aurreratu genuen moduan, herriko irisgarritasuna hobetzen jarraitzeko hainbat proiektu zituen esku artean udal gobernuak, eta, dagoeneko, horietako hiruren esleipen edo adjudikazio prozesuak abian dira: **San Lorentzoko 11. fasea** (941.482 €), **Mendiko Kale** (345.000 €) eta 'Parke Gorria' izenez ezagutzen den **Etxaluzeko parkea** (270.000€). Hiruren artean 1.556.480 euroko aurrekontua dute, —esleipen prozesua amaitzean ikusiko da zein den aurrekontu zehatza—, eta horrenbestez, udaleko Lurralde Antolamendu sailak 2025erako duen inbertsio partida osoaren (4,9 milioi euro) **%80** legoke baimenduta.

SAN LORENTZO

Urteak daramatza udalak San Lorentzoko urbanizazioa berritu eta irisgarritasun arauetara egokitzeko lanak egiten, zatika. Aurten, aurrerapauso handia ematea erabaki dute, 11. faseko lanek ermitatik gorako etxebloke guztiak hartuko baititu, 30-40 eta 65-66-67 zenbakien artean dauden oinezkoen ibilbide guztiak, hain zuzen ere.

Era honetako esku-hartzeetan egin ohi den moduan, zorua berritu, espaloiak zabaldu, oinezkoen ibilbideen jarraikortasuna bermatu, gehiegizko pendizak arindu, behar den lekuetan eskudela edo barandak ipini, eta ikusmen arazoak dituzten pertsonen orientazioa errazteko zoladura berezia egokituko da.



SAN LORENTZO

Ondoko planoak erakusten duen moduan, San Lorentzoko ermitatik gorako urbanizazioa berritzeko lanak egingo dira, auzoko 38-40 eta 67 etxeblokeen artean, zehazki.



941.482 euroko aurrekontua dute San Lorentzoko 11. faseko irisgarritasun lanek



MENDIKO KALE

Zorua guztiz berritu, eta espaloiak eta galtzada altura berean dituen plataforma bakarra egokituko da kale osoan. Arrapala ere egokituko da, Errekalderako lotura irisgarriago egiteko



345.000 euroko aurrekontua dute Mendiko Kaleko urbanizazioa berritzeko lanek



270.000 euroko aurrekontua dute Etxaluzeko 'Parke gorri' eraberritzeko lanak

Zutoinak ere ipiniko dituzte hainbat lekutan, autoak espaloira igo ez daitezen.

Bestalde, plataforma erako zebrabideak egokituko dira zenbait lekutan, beharrezko seinaleztapen horizontal eta bertikalarekin, eta mugikortasun arazoak dituztenentzako aparkalekuak ere egokituko dira, araudiak dioena betez.

Azkenik, lan hauek baliatuz, euri-uren saneamendu sarea eta argindar nahiz telekomunikazioetarako kanalizazioak ere berrituko dira.

MENDIKO KALE

Aspalditxotik zeukan Udalak Mendiko Kale eraberritzeko asmoa, baina bertan burutu diren eraikuntza lanen ondorioz, atzeratuz joan da. Baina iritsi zaio bere ordua.

Proiektuaren arabera, espaloiak eta galtzada altura berean dituen plataforma bakarra egokituko da Mendiko Kalen, eta zorua guztiz berrituko da, asfaltoaren ordeztu hormigoi armatuzko eta hormigoi inprimatuzko zolak jarritz. Kalearen amaieran dauden eskailera eta arrapala ere berritu egingo dituzte, Errekalderako lotura irisgarriago

egiteko, eta egun fatxadetatik doan kableatua (argindarra, telekomunikazioak...) lurperatzeko obra ere egingo da.

'PARKE GORRIA'

Azpian dauden garajeek mugatu dute, hein handi batean, Etxaluzeko parkea eraberritzeko proiektua, baina, hasierako diseinuari eutsiz, parkea 10 borobil-gunetan banatuko da, zuhaitzen eta belarraren presentzia, ahal den neurrian, bermatuz.

Forma geometriko honen (borobila) aldeko apustua egin da, zirkuluan esertzeak harremantzea errazten duelako, eta babesa ere badakarrelako. Bestalde, parkeari osotasuna emateko eta 'Parke gorri' izenari keinu bat eginez, altuera ezberdina izango duen zokalo gorri bat egongo da parkearen barneko perimetroan, igo eta jaitzi, agertu eta ezkutatu.

Eserlekuek eta oholtzak metalezko egitura izango dute. Altzari gehienak egurrezko lama bidez estaliko dira. Herritar guztientzat eta, bereziki, 8-14 urteko gazteentzako elkargune eta jolas gunea egokitu nahi da bertan.



Uztailaren 14an hasiko dira plaza ondoko lorategia, kioskoa eta jolas gunea berritzeko lanak

Datozen egunetan hasiko dira Foruen plaza inguruko espazioak birgaitzeko lanak. Gogoratu, 2022an egin ziren partaidetzazko aurrekontuetan herritarren boto gehien jaso zuen proposamena izan zela honako hau: plazako kioskoaren eta frontoiaren arteko zoladura berritzea eta berdeguneak egokitzea.

Ertz asko dituen proiektua izanik, Udalak lanketa berezia egin nahi izan du, departamentu ezberdinak (Haur eta Gazteria, Berdintasuna, Hezkuntza, Partaidetza...) elkarlanean jarritz arkitekto taldearekin batera, erantzun bateratua eman ahal izateko, eremu honek urtean zehar dituen erabilera ezberdinak, irisgarritasuna, berdintasuna eta inklusioa bezalako irizpideak aintzat hartuz. Azkenean, *Next Generation* funtsetatik jasotako dirulaguntzari esker, proiektu integrala prestatu ahal izan da, eta hauek dira, laburbilduz, egingo diren esku-hartze nagusiak, *Juntura* kooperatibak idatzitako proiektuaren arabera:

- Kiosko inguruko zorua berritu eta berdeguneak moldatuko dira, guztiontzako erabilgarriak izan daitezen, eta Gernikako arbola eta iturriaren presentzia indartuko dira.

- Kioskoari erabilera anitzagoa eman asmoz, iturri aldeko hesia zabaldu eta harmailak egokituko dira bertan, formatu txikiko ikuskizunetarako gunea egokituz.

- Gazteleku aurrealdeko zorua guztiz berrituko da. Zoru laua eta ez-irristakorra jarriko da, pisu handiei (kamioiak, barrakak...) eusteko moduko materialarekin

- Azoka gunean behin betiko arrapala egokituko da eta berdindu egingo dira azoka barneko eta kanpoko kotak, espazio jarraia bermatzeko.

- Lazarraga lorategiko horman apaindurak (landaredia eta argiztapena) jarriko dira.

Lanak Orsa S.L. enpresak egingo ditu 580.009 euroko (+BEZ) aurrekontuarekin, eta 6-9 hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.



"Legealdi planean jasotako egitasmoen %80 ditugu eginda edo martxan"

Agintaldi erdiko balorazioa egin du EH Bilduren udal gobernu taldeak

2023-2027 agintaldiko lehen bi urteetako jardunaren balantzea egin du udal gobernu taldeak eta, dagoeneko legealdirako planean jasotako proiektuen %80 eginda edo martxan daudela adierazi du. "Zehatzago esanda, egitasmoen %17 bukatuta ditugu, eta proiektuen %63 hasita", zehaztu zuen Izaro Elorza alkateak; "proiektu garrantzitsu ugari ditugu esku artean, lanketa handia eskatzen dutenak, egun batetik bestera egin ezin direnak, baina lanketa hori guztia epe motzean igarriko dugu. Espero dugu urtea amaitu aurretik legealdi planeko egitasmoen erdiak bukatuta izatea".

Beste datu bat ere azpimarratu nahi izan zuen alkateak, hauex: "legealdia hasi eta gaur arte, aurrekontuetan aurreikusiriko inbertsioen ia %90 egikaritu dugu. Pozik egoteko moduko datuak dira. Lan handia egin denaren seinale". Ildo horretan, alkateak eskerrak eman zizkien udal gobernu osatzen duten kide guztiei, udal langileei eta esparru ezberdinetan egiten eta eragiten ari diren herritarrei.

BITITZA DUINA ETA 0 BAZTERKERIA

Agintaldirako Herri Programan bost lan ildotan multzokatuta aurkeztu zituen proiektuak EH Bilduk, proiektu bakoitzak zehar-lerro ugari dituelako, eta lan ildo horien arabera egin du balantzea bera ere.

'Bititza duina eta 0 bazterkeria' atalari dagokionez, **Etxebizitzaren** arloa azpimarratu

» Agintaldirako egitasmoen %17 bukatuta ditugu, eta proiektuen %63 hasita. Proiektu garrantzitsu ugari ditugu, lanketa handia eskatzen dutenak, eta lan hori guztiori epe motzean igarriko dugu

» Legealdia hasi eta gaur arte, aurrekontuetan aurreikusiriko inbertsioen ia %90 egikaritu dugu

zuen Izaro Elorza alkateak. "Eskualde mailako azterketa ari gara lantzen iazko irailetik, eta etxebizitza plana landu dugu, eskualde zein herri eskala aintzat dituen. Ikasturte amaieran azalduko ditugu emaitzak, eta horren arabera ekintzak abian jartzeko moduan egongo gara agintaldi honetan, besteak beste, etxebizitza hutsak merkaturatzeko baliabideak eskaintzea izango da helburu nagusia".

Aukeratu gabeko **bakardade**ari aurre egiten saiatzeko, eskualde mailan abian jarri duten *Debagoiena ehuntzen: bakardadearen korapiloa askatu* eskualde mailako proiektua ekarri zuen gogora Elorzak. "Galdetegi bat zabaldu dugu, identifikaturiko beharrei irtenbide integralak emateko asmoz, eta irailean ezagutaraziko dugu azterlanaren emaitza, ekintza konkrituak aurkeztearekin batera".

Haur eta gazteen osasun mentalari dago-kionez, ziurgabetasun egoeran dauden herritarren arreta zerbitzua indartu dutela azaldu du udal gobernuak.

Zaintzari dagokionez, udalaren zaintza estrategia definitzen ari da gobernu taldea, udaletik eskaintzen diren zerbitzuak egokitzeke, hobetzeko edo berriak sortzeko. "Orain, identifikatutakoak kontrastatu eta ekintza plana zehazten hasiko gara, epea motzean".

Herri inklusibo bat eraikitzen segitzeko bidean, Oñatiko **harrera plan integrala** lantzen ari direla azaldu zuen alkateak. "Egina dugu aurre-diagnosia, eta sakoneko elkarriketak

ere egin ditugu pertsona migratuekin, harrera planeko edukiak eta proposamen zehatzak lantzeko".

BURUJABETZA ETA TRANTSIZIO EKOSOZIALA

Energiaren arloan gure herriaren erreferentzialtasuna indartuko duten urrats sendoak eman dituztela azpimarratu du gobernu taldeak. "Esanguratsuen, **Oñatiko argindar merkatu-ratzailea** sortzeko prozesua izan da. Lan handia egin da eta, horri esker, urte bukaerarako martxan egongo da. Eredu izango da Oñati. Aurrekari".

Energia efizientziaren arloan ere inbertsio garrantzitsuak egin ditu udalak, besteak beste, LED argiteria publikoan, autosorkuntzan eta autokontsumoan sakonduz, plaka fotoboltaikoak instalatuz zenbait eraikin publikotan...

Burujabetza eta trantsizio ekosozialaren arloan, Oñatin abian jarri den **Elikadura Ma-haia** azpimarratu du gobernu taldeak. "Aurrera begira hainbat proiektu garrantzitsu abiaraztea espero da". Horrez gain, tokiko elikadura burujabetza bultzatzen duen Debagoiena mailako **Tokixan** ekoizpen proiektuan ere parte hartzen ari da Oñatiko udala. "Oñatik protagonismo berezia izango du askotariko eragileek osatzen duten egitasmo honetan, datozen asteetan jakin ahal izango dugun moduan".

LURRALDEAREN GARAPEN OREKATUA

Garapen sozioekonomikoaren arloan, PERCO merkataritza planean jasotako ekintzak garatzen hasita dago udal gobernuak, ekintzailatza, formakuntza eta sentsibilizazioa lantzen. Eskualde mailan ere, komertzio txikien oinordetza bermatzeko programak diseinatzeko jardun du. "Gainera, iaz lankidetzak hitzarmena sinatu genuen **Bailara**, Debagoieneko enpresa elkartearekin, eskualdeko jarduera ekonomikoa indartzeko asmoz", azaldu dute.

Hirigintza mailan, **irigarritasun inklusi-boaren** aldeko apustua berretsi zuen Elorza alkateak. "Olakua auzoko urbanizazioa berritzeko bi fase burutu ditugu, San Lorentzo auzoko beste fase handi bat, eta Mendiko kaleko irigarritasuna hobetzeko lanak ere laster hasiko ditugu". Horretarako, irigarritasun lanetarako aurrekontua (910.000 euro) indartu egin dutela azaldu zuen alkateak.

Herrigunearen eta landa auzoen arteko lotura hobetzeko egiten ari diren lanak ere gogora ekarri zituen. "**Usakorako bidegorria** egiten ari gara, horrek eskatu duen aurre-lanketa guztia-rekin. Horri esker, oinezkoen, bizikletaz doazen eta, oro har, Zañartu, Garagaltza, Urrexola eta Torreauso auzoetan bizi diren herrikideen segurtasuna bermatu eta mugikortasuna erraz-



» **Etxebizitza plana landu dugu, eskualde zein herri eskala aintzat dituen. Ikasturte amaieran azalduko ditugu emaitzak eta ekintza plana**

» **Aukeratu gabeko bakardadeari aurre egiteko ekimena jarri dugu abian eskualde mailan. Irailean ezagutaraziko ditugu emaitzak eta ekintza konkretuak**

» **Zaintza arloko udalaren estrategia propioa definitzen ari gara, eta laster hasiko gara ekintza plana zehazten**

» **Oñatiko argindar merkatu-ratzailea urte amaierarako egongo da martxan. Eredu izango da Oñati. Aurrekari**

» **Zerbitzu eta ekipamenduen izaera komunitarioan eta elkarlan publiko-komunitarioan sakontzen jarraitzen dugu. Horren adibide da Emakumeen Etxea**

tuko du", azaldu zuen Elorza alkateak. "Usako lehengoratzeko lanak ere egin ditugu".

Kirolerako eta aisialdirako azpiegiturei dago-kienez, besteak beste, Eltzia inguruan egokitu duten **Pumptrack** zirkuitua, eta San Martingo **Kalistenia** parkea gogora ekarri zituen, eta kiroldegiko kantxa urdinak eraiki zenetik izan di-tuen gabeziak (teilatua, argiztapena, sarrera...) ere konpondu dituztela azpimarratu zuen. "Bestalde, Etxaluzeko 'Pake Gorria' eta plaza inguruko espazioak birgaitzeko proiektuak ere landu ditugu, eta laster hasiko dira lanak".

KULTURA ETA NORTASUNA

Arlo honetan herriko sortzaile, kultur eragile, auzo batzorde eta bestelako taldeei laguntzen jarraitzen du udal gobernuak, garrantzia berezia emanez **emakume sortzaileen** lana bistaratze-ari. **Euskararen** arloan berriz, Euskaltegiak eta etorkinen seme-alabei laguntzeko **Txipistin** udal zerbitzuek erabiltzen duten lokala birgaitzeko lanketa egin da, eta 2025-2026 artean burutuko dira birgaitze lanak.

Hezkuntza mailan, **Urgainen** egokitu duten eta herritar ororen eskura dagoen jolasgune eredugarria azpimarratu zuen alkateak. "Gai-nera, **San Lorentzon** 0-3 urte arteko jolas eremu berria sortzeko proiektua landu dugu, eta, bestalde, **Sancti Spiritus** unibertsitatea herrira zabaltzeko proiektua landu dugu".

Egindako lanari esker, Unibertsitatearen proiektuak **Next Generation** funtsetatik 3 mi-lioiko laguntza jasoko duela azaldu zuen alka-teak, eta, gaineratu "egindako aurre-lanketa eta lan mardulari esker, NEXT funtsetatik beste 2,7 milio euroko laguntza ere jasoko dugula, herri mailako proiektu ezberdinetarako".

GOBERNANTZA

Zerbitzu eta ekipamenduen izaera komuni-tarioan eta elkarlan publiko-komunitarioan sakontzeko lanean diharduela azpimarratu du udal gobernuak. "Gobernatzeko modua eral-datzen ari gara, herrikideak erdigunean jartzen, erabakimen espazioak zabaltzen... eta horren adibide da, esaterako, **Emakumeen Etxearen** proiektuan burutzen ari den parte hartze proze-sua. Herrikideekin ari gara espazioa eraikitzen".

Bi urte hauetan autobus zerbitzua hobetzeko egindako lanketa, eta zerbitzuaren ardura duen Foru Aldundiarekin egindako bilerak ere azpi-marratu zituen Elorza alkateak.

"Herri hau aurrera doa, duela hamalau urte aukeratu zuen norabidean, herritik eta herriaren-dako eraikitako herri ereduari, berdintasunean, tokiko garapenean, ongizatean, inklusioan, iraunkortasunean... Hurrengo bi urteetan ere lanean jarraituko dugu EH Bilduren udal gober-nuko kideok, hasieran geneukan ilusio, gogo eta konbikzio berdinekin", amaitu zuen alkateak. ■

Eltzia tabernaren kudeaketa lizitaziora aterako du Udalak



Duela bi urte esleitu zuen Udalak Eltzia taberna-kafetegiaren kudeaketa, bi urterako, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin (lau urte, gehienez). Hala, uztailaren 10ean beteko dira bi urte, eta egungo kudeatzaileak kontratua luzatzeari uko egin dionez, lizitazio berria jarriko du abian Udalak. Bideragarritasun txostena eskatuta dauka, pleguak eguneratzeko, eta laster jarriko da martxan prozesua, baina kontratu berria sinatu bitartean, taberna itxita egongo da denbora batez. Bien bitartean konponketa eta hobekuntza txiki batzuk egingo ditu Udalak. Laster emango dira lizitazio berriaren inguruko xehetasunak. Bien bitartean, Eltziako taberna kudeatzeko interesa dutenek **partaidetza@onati.eus** helbidera jo dezakete. Aurrerago zehaztuko dira bisita egunak.

Herriko utzikeria salatu du EAJk



lazko otsailean aurkezturiko mozioak inolako ondorioz izan ez duela ikusirik, EAJren udal taldeak gaia atera zuen berriro ekaineko osoko bilkuran, udalerriko ondare kulturala eta historikoaren narriadura geldiarazteko berehalako neurriak har ditzan eskatuz EH Bilduren udal gobernuari. Ildo horretan, gogoratu dute jeltzaleek, gaia bat datorrela 2025. urteko aurrekontuan jasota dagoen 'Kasko Historikoa Eraberritzeko Plan Berezia' diru- partidarekin.

Hirigune historikoan, monumentu enblematikoetan eta, oro har, herrian ohiko bilakatu diren pintada, pegatina, pankarta eta karteletan jarri du fokua EAJk, eta baita behar bezala zaindu

gabeko lorategietan eta belar altuan ere. EH Bilduren "inakzioa" eta "sentsibilitate falta" kritikatu ditu Amaia Erostarbe bozeramaleak. "Denak ez du balio, are gutxiago, ingurune amankomuna zikintzea edo degradatzea badakar".

EAJren mozioak kontserbazio eta garbitasun neurriak zein espazio publikoaren eta tokiko ondarearen errespetua sustatzeko konpromisoa hartzea eskatzen du, komertziala ez den publizitateari buruzko Udal Ordenantziari erreferentzia eginez. "Bizikidetza, guztiona dena zainduz ere eraikitzen da. Herria ez dago txukun. Errespetu kontua da", gehitu dute jeltzaleek.

EH BILDUREN ERANTZUNA

Lorezaintzari dagokionez, udaleko Zerbitzu batzordeko buru Xabier Igartuak gezurtatu egin zuen inakzioa dagoenik. "Apiriletik gaur arte herriko 51 lekutan egin dira belar mozketak, plangintza baten barruan, baina belarra aldi berean luzatzen da ezinezkoa da gune guztiak une berean moztea.

Ondarearen zaintzari dagokionez, Igartuak adierazi zuen udal gobernu-arentzat garrantzitsua dela herriko ondare kulturala zaintzea eta mantentzea. Ildo horretan, argitu zuen, "azken sei hilabeteetan, udal langileek egindako lanetatik aparte, 35.000 euro bideratu ditugu ondare historiko eta kulturala mantentzera. Horrez gain, iaz beste 227.000 euro bideratu genituen Vasco Navarro tren eta Gori-bargoiti baserria eraberritzera. Datuak argiak dira, eta agerikoak egindako lanak".

Igartuak gogorarazi zuen, gainera, Turismo bulegoa eta ikasketa gelak unibertsitate zaharrean egokitzeko udalak landutako proiektuari esker, Europako Next funtsetik 3 milioi euro lortu direla, eta dirulaguntza horren zatirik handiena Sancti Spiritus unibertsitatearen kontserbazio lanetara bideratuko dela. Igartuak gogorarazi zuen EAJk agintzen duen Foru Aldundiari dagokiola ondare historiko honen zaintza, eta ez duela diru partidarik izendatu fatxadako arazoari konponbidea emateko. Inakzioa norena?", galdetu du EH Bilduko ordezkariak.

Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Emakumion etxia eraikitzen

PARTE-HARTZE PROZESUA
CONSTRUYENDO LA CASA DE LAS MUJERES
PROCESO PARTICIPATIVO



TOPAGUNEko kronika

Ekainaren 11an ospatu genuen Emakumion Etxia Eraikitzen prozesuko Topagunia. Ikasturte amaierako hitzordua izan zen eta bere helburuak izan ziren egindakoa eta egin nahi duguna partekatzea, elkarrekin egotea, ikasturteko talde-lana baloratzea eta, azkenik, ospatzea.

50 bat emakume eta gizon gerturatu ziren Eltzia eta bi orduko saio emankorra izan zen.

Etxia irudikatu genuen, bere baitan arituko diren askotariko pertsona eta egoerak imaginatu; parte izan eta parte hartu genuen, bakoitzak bere onena eskainiaz; ikasturteko talde-lana positiboki baloratu genuen eta, ikasturte amaierara heldu garela ospatzeko topa egin genuen!

Aurkezpena irudimentsua izan zen, Talaiakidiek errezitatu zuten eta Leire Zubia ilustratzaileak collagea egin zuen, zuzenean. Hitzak entzun eta irudiak ikusiaz, Etxia errealtatean nolakoa izan daitekeen irudikatu genuen.

Ondoren, gogoetarako tartea hartu genuen eta horretarako, begirada bera partekatzen zutenak elkarrekin jarri ginen. Orotara 7 talde sortu ziren: emakumeen ahalduntzearen ikuspegia, ikuspegi feminista, lgtb+ ikuspegia, kulturarteko ikuspegia, ikuspegi antirrazista eta gizonen ikuspegia. Zubigileen taldeak dinamizatu zituen taldeok eta ahotsak entzun eta jasotzen jardun zuten. Bi galderen bueltako gogoeta egin zuten taldeek: zer eskaini ahal digu Etxiak? Batetik, eta, zer eskaini diezaiokegu Etxiari? Bestetik.

Era berean, etxeko lan-taldeetan parte hartu dutenek ikasturteko balorazioa egin zuten. Balorazio positiboa egin zuten: eraikuntza prozesua ahalduntzailea izaten ari dela partekatu zuten eta prozesura bakarrik gerturatu baziren ere, egun, taldean ateratzeak indartu egiten dituela aipatu zuten.

Itxiera eman aurretik, egoteko eta ospatzeko tartea izan genuen. Mokadu-janaren bueltan eta Saltserak jarritako musikarekin, Etxeko komunitatean egoteko momentu polita izan zen.

Ikasturte bat gehiago egin dugu Emakumion Etxia Eraikitzen, emakumeon ahalduntzerako urratsak ematen, Oñati feminismotik eraldatzen eta askotariko begiradak gure praktika eta pentsamenduan barneratzen, komunitatea sortzen.

Irailean berrekingo diogu lanari.
IZAN PARTE!



Gogoeta egin zuten zazpi taldetan banatuta



Leire Zubia, collagea egiten



Topaketa borobiltzeko, mokadutxoa izan zuten

Eskerrak eman nahi dizkiegu topagunea posible egin zuten guztiei:

- Errezitatzen: Talaiakidiak
- Collagea: Leire Zubia
- Talde-dinamikan: Zubigileak
- Musikan: Saltserak
- Mokadu-jana: Eltzia taberna
- Argazki eta bideoan: Itziar Bastarrika

Udal Sozioekonomia sailaren DIRULAGUNTZAK

Enpresa berriak sortu, lokal komertzialen **alokairua** ordaindu eta **langabeak** kontratatzeako dirulaguntzak ematen ditu Udalak, besteak beste

ENPRESA EKIMEN BERRIAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK

Enpresa jarduera berri bat sortu edo eskuz aldatuta jarduerari jarraipena ematen dion orok eska dezake dirulaguntza, herrian erroldatuta badago eta enpresaren egoitza fiskala, soziala eta fisikoa ere Oñatin baldin badaude. Udalak 1.500 euroko laguntza ematen du sortutako lanpostu bakoitzeko, eta bikoitza (3.000€), lehen sektorekoa bada. Gainera, sustatzailea emakumea den kasuetan %30 handitzen da dirulaguntza.

ALOKAIRUA. Merkataritza sektoreko lokalen alokairua ordaintzeko laguntza lerroa ere badu Udalak, lokala Oñatin baldin badago; hala, lehen urteko alokairu gastuak arintzeko dirulaguntza eskuratu ahal izango da, urtean 2.500 euroko mugarekin. Eskaerak egiteko epea azaroaren 28ra arte dago zabalik.

LANGABETUAK KONTRATATZEN DITUZTEN ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZAK

50 langile edo gutxiago dituzten herriko enpresa txiki edo mikro-enpresei zuzendutako dirulaguntza lerroa da hau. 2024ko uztailearen 1etik 2025eko ekainaren 30era arte egindako edo egingo diren kontratu berrietarako eskatu daitezke laguntzak, beti ere, kontratuak gutxienez 6 hilabeteko iraupena badute.

Kontratazioak enplegu sorrera garbia ekarri behar du, eta kontratatzen den pertsona Oñatin erroldatuta eta Lanbiden izena emanda egon behar du, eta ez du ahaidetasunik izan behar enpresako jabe edo zuzendaritzarekin.

Jardunaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko 1.300 euroko laguntza emango du Udalak. Sei hilabetekoa bada, 1.000 euro. Kontratututako pertsona emakumea bada 300 euro gehiago emango dira, eta laguntza %30 handituko da, Lanbideren irizpideen arabera kolektibo berezi batekoa bada kontratatutako pertsona. Azaroaren 28ra bitartean egin daitezke eskaerak.

GIZARATERATZE ETA LANERATZE PROZESUETATIK DATOZEN PERTSONAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

Gizarte bazterkeria arriskuan dauden edo lan merkatu arruntean sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen laguntzeko asmoz, Udalak dirulaguntza programa bat dauka gizarateratze edo laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzen dituzten enpresentzat.

Gutxienez 2 hilabeterako kontratua izan beharko da. Enpresak jasoko duen dirulaguntza 3.000 eurokoa izango da, lanaldi osoko eta 6 hilabeteko edo gehiagoko lan kontratu bakoitzeko; 2 eta 6 hilabete arteko kontratuen kasuan 1.500 euro. Laguntza %30 handituko da, baldin eta kontratatzen dena emakumea bada, edo 55 urtetik gora baditu. Eskaerak egiteko epea: azaroak 28.

◀ **Udalak 1.500 euro ematen ditu sortutako lanpostu bakoitzeko, eta 3.000 euro, lehen sektorekoa bada. Sustatzailea emakumea denean, %30 gehiago**

◀ **Jardunaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko 1.300 euroko laguntza ematen du Udalak; emakumea bada, 300 euro gehiago**

◀ **Lanaldi osoko eta 6 hilabeteko edo gehiagoko lan kontratu bakoitzeko, 3.000 euroko laguntza eskuratu ahal izango du enpresak**

Udaleko Landa Garapena sailako dirulaguntzak

Zabalik dago udaleko Landa Garapena sailak ematen dituen dirulaguntzak eskatzeko epea. Zazpi atal daude:

1. Nekazaritza ustialekuak modernizatzeak (22.000€)

Nekazaritza ustiategien jarraipena ziurtatzea da laguntza hauen helburua. Berrikuntza teknologikora eta belaunaldien arteko errelebor bideratutako laguntzak dira. Inbertsioak 40 urtetik beherako nekazari gazteek eginez gero, laguntzak %20 handitzen dira.

2. Bertako produktuak merkaturatzeko (22.000€)

Azokara baserriko produktuak saltzera doazen herritarrek 50 euroko ordainsaria jasotzen dute, azoka egun bakoitzeko. Kontsumo taldeei zuzendutako laguntzak ere atal honetan sartzen dira.

3. Nekazaritza erabilerarako ura ordaintzeko (1.000€)

4. Putzu septikoak garbitu eta instalatzeko (3.500€)

Instalazio berriaren kostuaren erdia ematen du Udalak.

5. Auzoetako ermitetako argindarra ordaintzeko (2.500€)

Argindarra auzotarrek ordaintzen duten kasuetan, udalaren laguntza jaso ahal izango dute.

6. Auzoetan argi puntuak jartzeko (4.000€)

7. Baso bide pribatuak hobetzeko (12.000€)

Baso sektorea garatu, modernizatu edo egokitzeko helburua dute laguntza hauek.

Urte amaiera arteko epea dago eskaerak aurkezteko.



Instalazio elektrikoak, Soldadura, Zaintza, Biltegi lanak, Sukaldaritza, Eraikuntzako mantenu lanak, Mendi lanak eta Garbiketak

ELKAR-EKIN-LANEAN

9 formazio ibilbide antolatu dituzte Makomunitateak eta Foru Aldundiak, langabezian edo zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen laneratzeko laguntzeko

Langabezian edo zaurgarritasun egoeran dauden herritarrei lan merkatuan sartzen laguntzeko bederatzi formazio edo prestakuntza ibilbide antolatu dituzte Debagoieneko Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, 'Elkar Ekin Lanean' programaren baitan.

Lan arlo ezberdinetako 9 ibilbide dira: **Zaintza** (Oñatin eta Aretxabaletan), **Instalazio elektrikoak** (Arrasaten eta Bergaran), **Soldadura** (Aretxabaletan), **Biltegi lanak** (Arrasaten eta Bergaran), **Sukaldaritza** (Arrasaten), **Eraikuntzako Mantenu Lanak** (Arrasaten), **Mendi Lanak** (Arrasaten) eta Garbiketak (Arrasaten).

Ikastaroak urria eta azaroa bitartean hasiko dira, eta ikastordu kopuru ezberdina izango dute, baina, aurretik, aurre-prestakuntza bat egin beharko da, kasu guztietan, irailean.

Zaintza, Soldadura eta Instalazio Elektrikoak ikastaroa gaitzen duten ikasleek erdi mailako lanbide zikloaren pareko titulazio ofiziala eskuratuko dute, eta

gainerako ikastaroren bat gaitzen dutenek oinarritzko mailakoa.

Foru Aldundia eta Mankomunitatearekin batera, eskualdeko 12 eragilek parte hartuko dute formazio programa berezi honetan: Emaús (Arrasate), MGEP (Arrasate), Miguel Altuna (Bergara), Zabaltzen SARTU (Aretxabaleta), ALE (Aretxabaleta), Bastida (Arrasate/Oñati), Daiteke (Aretxabaleta (LHL (Bergara), Kalexka (Arrasate), Arizmendi (Arrasate), Sarea-Bidean (Arrasate) eta Oñatiko Udalak.

Finantzazioaren zatirik handiena, %85a, Foru Aldundiak jarriko du, eta gainerako %15a eskualdeko udalak. Oñatiko udalak, gainera, aktiboki parte hartzen du programan, Olaburu zentroko instalazioak lagatzen baititu, Zaintza ikastaroa emateko.

Debagoieneko udalen batean erroldatuta dauden pertsonen parte har dezakete ikastaro hauetan. Formazio teorikoa eta praktikoa jasoko dute. Informazio gehiago: 943 003 198 / enplegu@onati.eus.



ZAINTZA ARLOA

Arreta sozio-sanitarioko prestakuntza Oñatin

**INFORMAZIO SAIOA
UZTAILAK 9 / 14:15**

Debagoieneko Elkar-EKIN-Lanean programaren baitan, zaintza arloko arreta sozio-sanitarioko prestakuntza jarriko da martxan Oñatin, irailetik aurrera.

Zaintza sektorean lan egiteko interesa duten pertsonen zuzendutako ikastaroa da, eta lehentasuna izango dute langabezian dauden pertsonen eta atzeritartasun egoera erregularizatuta dutenek.

INFORMAZIO SAIOA

Ikastaro honi buruzko informazio saioa egingo da uztailaren 9an (asteazkena), Zubillagako Olaburu zentroan, 14:15etan. Informazio gehiago: 943 00 31 98

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Z ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

ARGITZEN

prozesua abiatu da Debagoienez

Debagoieneko energia trantsizioaren norabidea adostea da helburua, **deliberazio prozesu** baten bidez. Horretarako, zozketa bidez aukeratuko diren 50 pertsonako **Herritarren batzarra** osatuko da.



◀ Mandatu

organoa sektore publiko, pribatu eta komunitarioko 18 eragilek osatzen dute: Debagoieneko eta Aramaioko Udalak, Deba Garaia Landa Garapena, Ekiola, Berener, Ixotzen, Esnargi, Tantai, Goiener, Fagor eta Enpresare

Debagoienez energia trantsizioaren inguruan eman beharreko urratsak adostu eta gauzatzeko deliberazio prozesua da **Argitzen**. Askotariko eragile eta pertsonen inplikazioaren bidez, eskualde mailan eman behar den norabide aldaketa adosteko proposamena da. Izan ere, energia trantsizioaren baitan, herritar eta eragile orok dagozkion ardurak hartu beharko ditu eta,

horregatik, denen arteko hausnarketa partekatua sustatzen du **Argitzen** prozesuak.

DELIBERAZIO PROZESUA

Energia eredia aldatzeko aukera ezberdinak aztertu eta noranzkoa erabakitzeri ekingo zaio. Aldaketa hori eskualdeko eragile publiko, pribatu, komunitario eta herritarrekin landuko da, eta horretarako bi organo eratuko dira:

Mandatu organoak konpromisoa hartzen du Herritarren batzarrek egingo dion gomendio-sortari erantzuteko

Herritarren batzarra. Debagoieneko 50 herritar aukeratuko dira zozketa bidez eta energia eredia norantz aldatu behar den gaiaren inguruan elkarrekin gogoeta egitera gonbidatuko dira. Udazkenean egin asmo diren bost saiotan ezagutza jasoko dute eta baita proposamenak egiteko laguntza ere. Azkenik, gomendio-sorta bat osatu beharko dute **Mandatu organoaren**

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLUTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 77 77

Mikel Egaña Urrutia

Aseguruak

Eskatu aurrekontua konpromezu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripuak
- Ontziak
- Osasuna
- Etxebizitza
- Aurrezkia
- Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanoccidente.com

Debagoieneko 50 herritar aukeratuko dira, zozketa bidez, Herritarren batzarra osatzeko, eta gomendio-sorta bat osatu beharko dute Mandatu organoaren esku uzteko

esku uzteko.

Mandatu organoa gogoeta partekaturako prozesu honen sustatzaile eta erabakigune nagusia da, eta berea da gomendioei erantzuna emateko ardura. Organo honek jasotako gomendioei erantzuna emateko konpromisoa hartzen du.

Deliberazio prozesu hau ez da ezerezetik sortu; Debagoiena 2030 sareak orain bi urte ekin zion energia trantsizioaren inguruan adostasunak lantzeko prozesuari, eta oinarriak finkatu ostean eratu da orain **Argitzen** prozesuaren ardura hartu duen talde sustatzailea.

Debagoiena energia kontsumo handiko eskualdea da, besteak beste, ehun industrialak eskualdean duen garrantziarengatik eta bizi ereduarengatik. Dagoeneko, eraldaketa energetiko, ekologiko, sozial eta ekonomikoa gertatzen ari da. Debagoienak garapen eredu iraunkor baterako bidea bultzatu beharko du, eta horrek energia kontsumoa gutxitzea eta energia berriztagarrien garapena eskatzen du. Baina zein mailatan garatu beharko liratekeen definitu behar da, eta horixe da, hain zuzen, **Argitzen** prozesuaren bidez zehaztu nahi dena.

Debagoieneko Alderdi Eguna ospatu du EAJk Oñatin



Alderdiaren eta herritarren arteko harremana sendotu eta alderdiak eskualdeko bizi-kalitatea hobetzeko dituen proiektuez hitz egiteko, Debagoieneko Alderdi Eguna ospatu zuen EAJk Oñatin, ekainaren 15ean. Murgialdai txakolindegia eta Txokolateixia bisitatu ostean, plazako lorategian egin zuten ekitaldi politikoa.

Euge Arrizabalaga, Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakariak EAJren ibilbidea goraipatu zuen, erabaki estrategikoetan asmatu dutela aipatuz. Dena beltz margotzen saiatzen diren estrategia populisten arriskuaz ohartarazi zuen, eta Nazio Ba-

tuen metodologiaren arabera, Euskadi 12. postuan dagoela azpimarratu; "Gipuzkoako langabezia tasa %6,5 inguruan dago — Euroeskualearen batz bestekotik 2 puntu beherago—, eta GINI indizearen arabera, Gipuzkoa da desberdintasun sozial txikiena duen lurraldea Europan, Eslovakiarekin batera".

Eraikuntza sozial eta nazionalean sakontzen jarraitzeko borondatea azaldu zuen, eta epe motz-ertaineko erronkak aipatu zituen, EAJrentzat lehentasuna dutenak: osasuna, hezkuntza, gizarte babesa, garraio publikoa eta etxebizitza.

'Urrezko Zozketa', Gurutze Gorriaren lanaren sostengu

Debagoieneko Gurutze Gorriko boluntarioak hasita daude 'Urrearen Zozketa'-ko loteria-billeteak saltzen. Elorregiko egoitzan eta eskualdeko hainbat establezimendutan eskura daitezke txartelak. Oñatin, ondorengo hauetan: *Anduaga, Juldain* eta *Igartua* farmazietan, *Errekalde* dendan, *Errota* okindegian, *Altuna* eta *Irizar* estankoetan, *Magdalena* gasolindegian, *Mendizabal* kirol dendan, *Pake Lekuko* eta *Sesiñena* ile-apaindegietan, *Fernandez* arrandegian, *Txantxiku* fruta dendan, eta *Garoa, Helmuga, Olakua, Aldapa* eta *Eltzia* tabernetan.

Uztailaren 23an egingo da zozketa eta, guztira, 7 milioi euro banatuko dira saritan: 3 milioiko lehen saria, milioi bateko bigarrena, 500 mila euroko hirugarrena, eta 2.000-50



euro arteko milaka sari. 'Urrezko Zozketa' finantzazio iturri garrantzitsua da Debagoieneko Gurutze Gorriarentzat. Lortutako dirua bertako ibilgailuen ekipamendua mantendu eta hobetzeko erabiliko da, eta baita gizarte proiektuetarako ere. Iaz, 800 pertsona baino gehiago artatu zituen Debagoiengan.


**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**
Ultzein kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

**ARANBURU
ALTZARIAK**
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna eta Gaztelekua (Azerixan)

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

OHARRA

CHCk uztailaren 16an utziko dio Oñatin aurrez aurreko arreta eskaintzeari

Merkaoña-k CHC argindar merkaturatzailearen agente komertzial izateari utziko dio uztailaren 16an. Horren ondorioz, egun horretatik aurrera ez da CHCk lotutako zerbitzurik eskainiko Bidebarrieta kaleko bulegoan.

Aurrerantzean, CHCko bezeroek honako telefono edo helbideen bidez jarri beharko dute harremanetan euren argindar merkaturatzailearekin:

CHC (CIDE HCENERGIA S.A.):

Mail: atencion.clientes@chcenergia.eus

Telf.: 900 373 272

CRE (Comercializador de Referencia

Energético S.L.U.)

Mail: atencion.clientes@corenergetico.es

Telf.: 900 813 745

Bidebarrieta kaleko bulegoa ez da itxiko. Merkaño S.L.-k aktibitatearekin jarraituko du, Oñatiko argindar merkaturatzailea sortzeko prozesuari eta Onaro telekomunikazio operadoreari lotutako zerbitzuak eskainiz. Beraz, argindar merkaturatzailea aldatu edo gisako gaiei lotutako zalantzak argitu gura dituenak, Bidebarrieta 24ko bulegoan izango du horretarako aukera.

Merkaoña S.L.

» OHAR ETA DEIALDIK «

HERRIBUSA USAKORA

Ekainaren 16an udako ordutegia sartu zen indarrean Herribus zerbitzuan, eta orduz geroztik, arratsaldeko bi zerbitzu Usakoraino iristen dira, hain zuzen ere, Ugarkaldetik 16:00etan eta 19:30etan abiatzen direnak. Zerbitzu honek hiru hileko iraupena izango du, baina bi asteko etenarekin, abuztuaren 10etik 24ra, Herribusa goizez soilik ibiliko baita, 14:00ak arte. Abuztuaren 25etik aurrera ohiko ordutegia berreskuratuko da, eta Herribusak Usakora joaten jarraituko du, irailaren 12ra arte.


ARTILE BILKETA OÑATIN

Landaola, Gipuzkoako landa garapen elkarten federazioak antolatuta, Foru Aldundiaren laguntzarekin, artile bilketa zerbitzua eskainiko da Gipuzkoako hainbat herritan. Oñatin, zehazki, uztailaren 10ean izango da, Urrutxuko ekarpen gunean. Bertara artilea eraman nahi duten artzainek aurrez 696 433 602 zenbakira deitu behar dute. Artzainek tasa bat ordaindu beharko dute, ardi kopuruaren arabera.

1980koen KINTTADIA

1980an jaiotako herritarrek bazkaria egingo dute irailaren 6an. Izena eman nahi duenak 70€-ko transferentzia egin behar du ES47 3035 0005 36 0051126744 (Laboral Kutxa) kontuan, izen-abizenak jarrita, uztailaren 6a baino lehen. Bazkaria Etxe Aundin izango da.

ONNERA GROUP





Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> GAUEZ ATERATZEN HASTEN DIREN GAZTEEN GURASOENTZAT... <<

Udako giro eta jaien garaia heldu da, eta horrekin batera ailegatzen da puntu bat non ezin dugun gure seme-alaben gaueko irteerak ekidin, horrelakoetarako zenbait aholku eskaini nahi genituzke:

- Hitz egin zuen seme-alabez alkoholaren eta beraren efektuen inguruan etxean.
- Erantzukizunez kontsumitzeko pautak eman. Ulertu, era berean, nahiz eta oraindik beraiek kontsumitzen hasteko goiz den, inguruan estimulu asko izango dituztela, lagun batzuk edaten hasiak direla, ...
- Konfiantza eman, konfiantza eskatu ahal izateko. Debekuak edota errietak, gure seme-alabekiko distantzia sor lezake, eta hauek gauzak ezkutuan egitera eraman. Kontatzen digutena entzun, eta beraiekin landu, baina etengabe epaituak direla sentiarazi gabe.
- Esanda baino, eginda gara eredu, beraz erakuts diezaiegun adibidearekin ere alkoholaren kontsumoa puntuala eta neurrikoa izan behar dela.
- Askotan, euforiak eta emozioen kontrol ezak, komentario edo jokabide desegokiak esatera edo izatera eramaten gaitu. Zaindu dezatela beraien burua, eta era berean, zaindu ditzatela lagunak, horrelako jokabiderik izan ez ditzaten. Arazo eta gatazkak sortzea erraza izaten baita askotan festa giroan.
- Era berean, gauez, festa-giroan, kalean ibiltzeko pauta batzuk eman. Norbere herrian, edo gazte nagusiagoen kasuan, beste herri batzuetara joatekoak badira.
- Esan ez uzteko **inoiz** lagunak bakarrik. Oñati leku segurua izan arren, gauean testuingurua aldatu egiten da, eta bertan ere jendearen jokabide batzuk desegoki izatera pasatzen dira.
- Ez daitezela herri erdiguneetatik asko aldentu. Jendea

dabilen tokian, estimulu gehiago badaude ere, momenturen batean laguntza beharko balute, beti egongo daiteke norbait laguntzeko prest.

- Jakina, esan ez dezatela onartu ezezagunek eskainitako inolako sustantziarik.

Hein berdinean, irteera horietan alkoholaren kontsumoa eman behar bada pauta batzuk ere eskaini diezaiekegu:

- Edan aurretik zerbait jan, estomagoa beteta izanez gero gorputzak alkoholaren kaltea gutxiago nozituko du.
- Alkoholik gabeko edariak edan egarria kentzeko.
- Txandaka edan edari alkoholodunak eta alkoholgabeak. Mozkortzen ari zarela nabaritzen baduzu, edan alkoholik gabeko edariak.
- Edan patxadaz. Tabernaz taberna ibiliz gero ere patxadaz edan, markatu zure erritmoa ez dago beste pertsona batzuk bezain azkar edan beharrik.
- Ez nahastu edari alkoholodun desberdinak (adibidez garagardoa + ron + gin + ardoa)
- Legez kanpoko drogak erabat ekidin.
- Mozkortuta bazaude ez gidatu, eta ez joan alkohola edan duen pertsona batek gidatzen duen autoan. Horrelako egoeretan, garraio publikoa erabili.
- Ikasi ezetz esaten, ez zara inor baino gutxiago izango horregatik, alderantziz.
- Triste antzean zabiltzanean, ez edan edari alkoholodunik. Alkoholak ez du balio animatzeko. Alkohola depresore bat da.
- Alkohola neurrian edan beti; gerora egindakoez ez damutzeko.

Gaztelekuko hezitzaile taldea.

AGENDA:

GAZTELEKUKO TOPALEKUA

- **Ekainak 26**, Gaztelekuan afaldu eta lo (talde itxia).
- **Uztailak 1-4**, 2009koen prozesuko bidaia Llanesera.
- **Uztailak 4**, gazte-futbol topaketa Deban (talde itxia).
- **Uztailak 8-9**, mendian kanpaldia (talde itxia).
- **Uztailak 14**, Laidan paddle-surf (irteera irekia).
- **Uztailak 14-16**, gaztelekuen arteko udaleko ibiltaria (talde itxia).
- **Uztailak 16**, Labenne-ko ur parkera (irteera irekia).

GAZTELEKUKO KUBOA

- **Ekainak 25**, Surf irteera irekia Debara (Kuboko haur guztientzat).
- **Uztailak 2**, Zubillaga pelota txapelketa (Kuboko haur guztientzat).
- **Uztailak 10-11**, Atlantique Park + Donostira irteera LH6.
- **Uztailak 15**, Basondo + Laidako hondartza (LH 3-4).
- **Uztailak 21-22**, Atlantique Park + Donostira irteera LH6.

San Martin egoitzan beste 3 greba egun deitu dituzte uztailerako



Egoitzako langileak ekaineko mobilizazio batean (Argk.: ELA)

ELA sindikatuak deitu ditu greba egitera Gipuzkoako erresidentzia eta eguneko zentroetako langileak **uztailaren 9, 10 eta 11rako**. Hitzarmen berriaren negoziazioan dagoen blokeoa gainditu eta sektoreko langileek bizi duten prekarietatearekin amaituko duen lan hitzarmen bat eskatzen dute.

"Urtarrilean hasi ginen negoziatzen sektoreko hiru patronalekin (Adegi, Matia eta Lares), baina lau bilera burutu ostean, erantzun ere ez diete egin sindikatu ezberdinek mahai gainean jarritako aldarrikapenei", adieraz du ELAK. Sektore honetan egun 5.000 bat langilek egiten dute lan Gipuzkoan, ia denak emakumeak, eta %90ean Foru Aldundiak finantzatzeko duen zerbitzu publikoa eskaintzen dute, baina lan baldintza prekarioak dituzte, enpresa pribatuaren mesedetan eta langileen kaltetan", salatu du sindikatuak.

Zaintza sistema erdigunean jarri eta zaintzaileen lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmena eskatzen du ELAK, besteak beste honako edukiekin:

- %100eko kontratuak langile guztientzat
- Soldata arrakalarekin amaitzea
- Asteko lan orduak 32 izatea, eta erretiroa aurreratu ahal izateko formulak ezartzea
- Soldata igoera
- Zerbitzuak euskalduntzeko baliabideak
- ...

Lan baldintzen hobekuntzak zerbitzuaren kalitatearekin zuzenki lotuta daudela dio sindikatuak, eta, beraz, dei egiten die langile guztiei ez ezik, senide, eragile sozial eta, oro har, herritarrei, mobilizazioetan parte hartzera.

Scape Room lehiaketa antolatu du Txandak, 15-25 urteko gazteentzat

Oñatiko gazteek herriko dendak eta saltzen dituzten produktuak ezagutzeko helburuarekin, *Scape Room* erako erronka-lehiaketa antolatu du TXANDAK, 15-25 adin tarteko gazteei zuzenduta. Parte hartzeko, aurrena pasaportea eskuratu behar dute Txandako dendaren batean eta, ondoren, herriko 27 saltokitan —pasaporteko QRan dago zerrenda— gorde diren pista aurkitu eta balioztatu beharko dituzte denda bakoitzean, pista horiekin pasaportean azaltzen den mezua osatzeko. Uztailaren 12ra arte (13:00 baino lehen) luzatuko da lehiaketa. Dena ongi osatuta aurkezten duen lehen gazteak 500 euroko erosketa bonoa irabaziko du, eta gainontzeko asmatzaileen artean 200 euroko 10 sari zozkatuko dira.

ULMAk bere hazkundera finkatu du 2024an

Ekainaren 13an burutu zuen Batzar Nagusian onartu zituen ULMA Taldeak iazko kontuak, eta, oro har, testuingurua ziurgabea izan bada ere, herriko proiektu sozio-enpresarialak bilakaera positiboa izan du, datuek erakusten duten moduan. Taldea osatzen duten 9 negozioen salmenta bateratuak 1.151 milioi eurokoak (+%) izan ziren, eta irabazi garbia 109,8 milioiokoa (+%2,8).

ULMA Taldeak 145 milioi euroko inbertsioak (+%38) egin ditu, ekoizpen lantegi batzuk ireki edo handitu, eta filial berriak ezarri, eta 161 lanpostu gehiago sortu ditu.

"Emaitzek gure proiektua indartsu eta sendo dagoela berresten dute, baita testuinguru zorrotz batean ere", adierazi zuen Iñaki Gabilondo zuzendari nagusiak; "modu orekatuan haztea lortu dugu, eta gure nazioarteko posizioa indartzea eta kalitatezko enplegua sortzen jarraitzea ere bai. Hori guztiori, gure printzipio kooperatiboetara eta gizartean dugun konpromisoari uko egin gabe".

ULMAk nazioarera zabaltzeko eta dibertsifikatzeko hasitako prozesuan aurrera egiten jarraitzen du, eta, hala, beste herrialde batzuetako salmentak fakturazio osoaren %73 dira egun.

Bere ingurunearekin duen konpromiso sozialari dagokionez, ULMAk 1,1 milioi bideratu zituen iaz gizarte, kultura, hezkuntza eta komunitate ekimenak laguntzera.

ULMA Taldea 9 kooperatiba industrialek osatzen dute eta guztien artean 5.747 pertsonari ematen diete enplegua, 81 herrialde ezberdinetan. Plantillaren %55ek matrize kooperatiboetan garatzen dute beren jardura.

Herriko txoko guztietara iritsi nahi?

Jarri zure iragarkia aldzikarian

publi@onati.eus

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

'Laugarren ingresoaren ondoren'

> Jarraian duzuen **Urko Egañaren** bertso sortak akzesit saria jaso du Durangoko Julene Azpeitia literatur lehiaketan.

> Doinua: *Santa Barbara Bendita (egokitua)*



1.- Demagun mundu hau dela
gure bakteri-azoka
ta banaketa egiten
joaten dela auzoka!
Ondo gainditu arren pandemia,
sepsia edo anemia,
zerbait zetorren pausoka,
edo izan ziteken astenia...
Zerbait ari zen hasten, ia
hil ninduen plazoka.

2.- Egun batez egindako
analisiak tarteko
deitu zidaten emaitza
txarren berri emateko.
Zenbat kontsuelu ta hitz merke pila,
piska bat lasaitu nedila
ta baikorra izateko!
Eskegi nuenerako mobila
han nuen zai ZIU mobila
ospitalera joateko.

3.- Gaixotasun larririk ez
nuen izan orduraino!
Ezer txarragorik ez da
entzun nahi ez denik baino!
Lehenbiziko diagnostikoa
a zer nolako ostikoa
ondo hondoratzeraino!
Nahiz gaur arte izan agnostikoa
aldata dut pronostikoa
edozer sinestearaino.

4.-Doktore oso dotore
ta doktoretzan Cum Laude
batek hala esan zidan:
_Hiltzeko zorian zaude!
Baina zu ez zaitez larritu, zera...
Agian aterako zera,
"A" ta "B" aukerak daude.
Alde handia dago "A"-tik "B"-ra,
imajinatzen duzun bera,
baina lasai, gu hor gaude.

5.- "A" aukera hiltzea zen!
Beraz "B" zen nahi nuena,
gurpildun aulki batera
kondenatzen ninduen.
Guztia gupil gainean joan zedin
mediku bat neukan nirekin
gauzak garbi zituena!
Ez zena ikaratzen ezerrekin
ta bazekiena zer egin!
Ta hala egin zuena!

6.- Nahiz dena azaldu zidan
argi baino argiago,
argitasunaren giran
iluntasun piskat dago!
_Ez bada zorionerako zubi
ez dut nahi malkorik isuri!
Baina bestela prest nago!
_Ez dituzu nahiko globulu zuri,
orain ez badizugu zuri
zerbait egiten... Akabo!.

7.- Metabolismoaren huts
bete ezinen eskratxe
haiek zulo batetara
ninderamaten baratxe!
Paracetamol ta Ibuprofeno
hotzarentzako neopreno,
ta minarentzako partxe!
Minik ez nuenean, fenomeno
egoten nintzen, baina beno,
gaitza beti neukan hantxe

8.- Bat, bi, lau, zazpi, bat, hiru,
bederatzi pazientea,
minez nengoenean ez
nintzen oso pazientea!
Eguna hasten nuen izerditan
arnasa galduz hitz erditan...
Ta sua zen hitzen kea!
Ia hogeitamar udaberrian
nork nahi du eskelen berritan
jarri bere izenpea?.

9.- Esan dezaket laugarren
ingresoaren ondoren
orain sentitzen naizela
indartsuen ta ondoen.
Gurpildun aulki formako ordaina
da geratu zaidan orbaina
berriro jaio baino le(he)n.
Bizitza aldatu egin zait baina
gozotik dut gazitik haina!
Nahizta gazitik asko den.

10.- Guztia egonagatik
negar malkotan bustia
zerbaiten hasiera da
beste zerbaiten uzkia.
Bizitza loitu arren gurpiletan
itxaropenen ur piletan
kendu nahi dut lohi guztia,
batzutan egunsenti zurbiletan
ta eki alde hurbiletan
irtetzen zait eguzkia.

11.- Sagar heldu bat dirudit
nahiz egon hil aginean,
ni hozkatzen nauenak min
beharko du haginean!
Nahiz ez naizen heriotzera heldu
ez heltzeak egin nau heldu
nik daukadan adinean!
Nahiz sagarrondo batean usteldu
adarrari nahi diot heldu
ahal dudan adinean.

OHARRA- Bertso sorta hau
Iñaki Igartua oñatiarrak izandako
gaixoardian eta antzeko egoeran
dauden pertsonengan pentsatuz
osatu zuen Urko Egaña.



Aloña Mendi Xake elkartearen talde sustatzailea.

Udako ordutegia KIROLDEGIAN

Ekainaren 15az geroztik indarrean da udako ordutegia Zubikoa kiroldegian.

UZTAILEAN

- Astelehenetik ostiralera 07:30 - 21:30
- Asteburu eta jai egunetan 09:00 - 20:00

ABUZTUAN

- Astelehenetik zapatara 10:00 - 20:00
- Igandeak: itxita

Xake elkartea eratu nahi dute Aloña Mendiren baitan

Dena ondo bidean, irailean jarriko da martxan Aloña Mendi Xake elkartea, Alberto eta Markel Vesga aita-semeen eta zenbait guraso eta xake zaleren ekimenari esker. Aloña Mendi kirol elkartean aurkeztu dute egitasmoa, eta klubaren oniritzia daukate. Orain, zuzendaritza taldea osatu, estatutuak prestatu eta xakean aritu, jolastu, gozatu eta ikasi nahi duten herritarrek elkartzea falta da. "Whatsapp zenbaki bat jarri dugu horretarako (627 342 158) eta bertara deitu dezake elkarteko kide izan edo interesa duen orok".

Zubikoa kiroldegiko bilera gela batean izango du egoitza xake taldeak. "Astean bi saio eginez hasiko gara. Asteazkenetan, saio irekia egingo dugu, nahi duena jolastera hurbildu dadin, modu irekian; eta ostiraletan saio formalagoak egingo ditugu, hobetzen ikasteko: teknika, taktika, estrategia...", azaldu digu Alberto Vesgak. Bera arduratuko da, Markel semearekin batera, saioak gidatzeaz. Hainbat bider Euskadiko txapeladuna izana da Markel, 19 urteko gaztea, eta nazioarte mailako FIDE Master gradua lortzeko bidean da.

Vesgatarrak legazpiarrak dira, baina, lanagatik, aitzak lotura estua du Oñatirekin, eta urtetxo batzuk daramatzate haurrei xakea irakasten, bai Udalak antolatzen duen Uda Kanpainaren baitan —aurten 40 neska-mutiko dituzte— eta baita Urgainen antolatutako eskolaz kanpoko tailerretan ere. "Beti pentsatu izan dut Oñatin badagoela xakerako zaletasuna. Ikusi besterik ez dago Gaztelekuak urtero antolatzen duen txapelketa, aurten 30.a izango dena. Uda kanpainan ere harrera ona du eta, beraz, guraso talde bat animatu denez, elkartea sortzea pentsatu dugu. Deialdi irekia egin dugu, eta nik animatu egin nahi dut oñatiarrak, bai gazteak eta baita jende heldua ere, elkartera batzera. Gauza polit asko egin daitezke. Etor daitezela lasai!".



Markel Vesga gaztea aldibereko partidak jokatazen 20 xakelariren aurka





Mimenza seigarren aldiz txapelkun Torreauzon

Idoia Nogales izan zen azkarrena emakumeen artean

Torreauzoko *Pogacar* bihurtzen ari da Aitor Mimenza. Elorrioarra irteera marran baldin badago, gainerako lehiakideek bigarren postuarekin konformatu behar dute. Kontuak ere ia galduta dituen arren, 6. garaipena lortu zuen ekainaren 29an jokatu zen Torreauzoko 26. lasterketan. Egun Azpeitian bizi den korrikalariak 0:24:16an osatu zuen Olaterainoko joan-etorria (7,5km). Endika Donnay arrasatearrak (0:24:22) eta Xabi Lete oñatiarrak (0:24:39) osatu zuten podiuma.

Emakumezkoetan Idoia Nogales debarra

(0:30:03) izan zen azkarrena eta bi oñatiarrek osatu zuten podiuma: Alaitz Atxa (0:31:33) eta Nagore Uribarri (0:34:47). Mugikortasun mugatuko en artean, Igor Elizburu, *Bizi Hadi* taldeko elgoibartarra izan zen azkarrena (0:22:09) *handbike*-an. Guztira, 255 korrikalarik amaitu zuten lasterketa.

Bukaeran, ohi bezala, opari zozketa oparoa egin zen lehiakide guztien artean, eta, sari berezietako bat *Bizi Hadi* elkarteari eman zion *Abixaran* talde antolatzaileak, inklusioaren alde egiten ari den lan bikainagatik. Zorionak guztiei.



Brontzea Aloña Mendirentzat Gipuzkoako txapelketan

IGERIKETA Aloña Mendi igeriketa taldea 3. sailkatu zen Tolosan jokaturako Gipuzkoako txapelketan. Bakarkako lanei dagokienez, denetik egon zen. **Mattin Garai**, **Sara Txintxurreta** eta **Alixo Ojea** podiumera igo ziren proba ezberdinetan, eta 4x200 krol estiloko errelebo proban 3. sailkatu ziren hala neskak nola mutilak.

ESPAINIAKORA. Azpimarratzekoa, bestalde, **Aimar Urzelai**, infantil mailan, eta **Julen Pedregal**, alebiretan, sailkatuta daudela, jada, Espainiako txapelketan lehiatzeko, eta Aixe Ojea ere minima lortzetik oso gertu dagoela. Hurrengo asteburuan Euskadiko txapelketak jokatu dira.

Triatloi luzeko munduko txapelketan 11. sailkatu da Mikel Ugarte



Mikel Ugarte Ramos 11. sailkatu zen ekainaren 29an Pontevedran jokatu zen distantzia luzeko munduko triatloi txapelketan. Igerian 3 km, bizikletan 120 km eta korrika 30 km egin behar izan zituzten, eta oñatiarrak 5:53:44an osatu zuen ibilbidea. "Postua ez da txarra, baina ez nago pozik, nire errendimendua ez delako esperetakoa izan", adierazi digu Ugartek. "Igerian flojo samar ibili naiz, bizikletan hobeto, eta korrika gaizki. Bero izugarria egiten zuen -36°- eta superbibentzia ariketa bat izan da gehienontzat". Munduko txapelketarako Espainiako federazioak aukeratutako lau triatletetako bat izan da Ugarte, eta alde horretatik pozik dago.

Bii aste lehenago Zarauzko triatloian (2,9 km / 80 km / 21 km) 4. postuan helmugaratu zen Ugarte (03:45:55). "Gustora geratu nintzen. Nire lehen aldia zen Zarauzko triatloi mitikoan, maila handia egon zen eta errendimendua ona izan nuen". Azpimarratzekoa, bestalde, martxoan eta maiatzean *Ironman* bana egin zuela Oñatiarrak; Lanzaroten (08:37:16) 7. sailkatu zen, eta Zelanda Berrian (07:56:38) 6.

Asteburuko irteera Pirinioetara: Anayet eta Foratata



Ohi bezala, uztailan asteburuko irteera antolatu du Aloña Mendik Pirinioetara. **Hilaren 19-20an** izango da. Larunbatean, Canfranc-Canal Roya-Anayet (2.545m.)-Portalet (17,5 km /+1250m) ibilaldia egingo dute, 7 bat ordukoa. Anayeteko gailurrera iristeko kate batekin babestutako gune bat igaro behar da.

Igandean, Formigal-Pico Laña-Foratata Occidental (2.292m.-Formigal ibilaldi zirkularra egingo dute (12,6 km /+970m.). Foratatako igoeran trepada txiki bat dago. Larunbat gauean Formigaleko Nievesol hotelean hartuko dute ostatua. Mendira ez da aparteko pisurik eraman beharko, autobusa zain egongo da-eta. Prezioa: 100 €. Izen-ematea: **uztailak 9-13** alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Irteera, goizeko 6etan postetxe parean.

Pilota eguna, denboraldia ixteko



Ekainaren 13an ospatu zen Pilota Egunarekin itxi zuen denboraldia Aloña Mendiko Pilota sailak. Maila ezberdinak jokatu ziren kiroldegian, emaitza hauekin: **Benjamin (1 urte)**: Peio Altuna/Jurgi Otxoa, 16-9; **Benjamin (2. urtea)**: Hegoi Lopez / Beñat Guridi 16-12; **Alebinak (1. urtea)**: Peru Ibarzabal / Guren Palacin 16-8; **Alebinak (2. urtea)**: Aner Mugarza / Ibai Axpe, 16-5; **Infantilak**: Peru Gezalaga / Unax Egaña (atzeratua); **Kadeteak**: Liher Errasti / Iker Rodriguez, 18-15; **Jubenilak**: Markel Beitia / Joanes Osés, 18-17; **Nagusiak**: Ander Biain, Manex Madinagoitia, 18-17.

UDABERRI SARIA: Bestalde, Kepa Osés, Unax Egaña eta Jon Guridik Errendimenduko Udaberri Saria irabazi dute Infantiletako 2. mailan.



3x3 Saskibaloia festa Olakuan

Ekainaren 28an jokatu zen Olakuako 3x3 Saskibaloia txapelketaren 4. edizioa, musikak giroa. Hamaika talde parte hartu zuten. Multzokako fasea jokatu ostean, lau talde onenen arteko finalerdiak jokatu ziren eta, azkenean, *Snipers* eta *Galdos* taldeak sailkatu ziren finalerako. Argazkian daude talde biak. Garaipena *Galdos* taldearentzat izan zen.



Argk.: Asier Egaña

KANTOIKRIT, pinoi finkodun lasterketa uztailaren 12an

Uztailaren 12an, larunbata, jokatu da KANTOIKRIT, pinoi finkodun bizikleten lasterketa ikusgarria Oñatin, ohiko ibilbidean: **Foruen plaza-Naparrena kantoia-Patrue Kale-Santa Marina-Portu Kale-San Anton-Aita Madina** (ezkerreruntz)-**Unibertsitate etorbidea** (kuartel pareko biribilguneraino)-**Unibertsitate etorbidea-Foruen plaza**. Denera 1,6 km-.ko ibilbide ikusgarria herriguneko kaleetan. Txirrindulariek 15 itzuli eman beharko dizkiote, 24 kilometroko ibilbidea osatzeko.

Aurten 10. edizioa izango da, 'Kantokrit' izenpean jokatzeko denetik. Aurretik, beste bi aldiz ere jokatu zen, 'Surf Festa'ren baitan. Lasterketa gaueko 22:00etan hasiko da, baina orduerdi lehenago (21:30) itxiko da zirkuitoa, txirrindulariak berotu ahal izateko. *Streaming* bidez ere jarraitu ahal izango da *Youtube*-n. Izen-ematea sailkapenak.com atariaren bidez egin behar dira.

Udan, kultura kalera

> Uztaileko asteazkenetan ikuskizun bana izango dugu **'KALEAN'**. > **San Martin** zuhaitzian, **San Lorentzoko** ermita aurrean, **Lazarraga** lorategian eta **Errementari** plazan izango dira ikuskizunak

Ekainean eman zitzaion hasiera udaleko Kultura sailak antolatzen duen 'Kalean' udako kultur egitarauari, Jose de Azpiazu Musika Eskolako ikasleen eta Ganbara Faktoriak Arrikutzen eskainitako emanaldiekin, eta orain, uztailan, asteazkenero, izango dugu kultur ekitaldi ederrez (musika, dantza, antzerkia...) gozatzeko aukera, herriko ez ohiko 'eskenatokietan'. Uztailaren 2an izan genuen aurreneko emanaldia, *Aiama Quartet* jazz laukotearena, eta datozen asteetan ere izango dugu zer entzun eta zer ikusia.



► UZTAILAK 9, ASTEAZKENA

San Martin / 19:00

'URA GARA BIDEAN' ikusikizuna



SAGEL taldearen eskutik, eta ura metafora gisa hartuta, *Sakabi*, *Gelatxo* eta *Elgeta* trikitilarien figurak eta euren ibilbidea gogoratu eta gorestea helburu du ikuskizunak, beraien kantuak gaur egungo musika moldeetara ekarrita. Oinkari dantza taldeko kideek ere parte hartzen dute.

► UZTAILAK 23, ASTEAZKENA

Lazarraga lorategia / 19:00

MIRIAM LUJUA taldearen kontzertua



2023an ETBko *Ztanda* saioa irabazi ostean, iaz 'Lur' izeneko diskoa grabatu zuen Miriam Lujua, jazz, pop eta soul estiloak uztartzen dituen euskarazko 7 abestiz osatutako lana. Manu Sanchez (bateria), Aitor Garoz (Baxua), Gasti Segui (pianoa) eta Iñigo Etxeberria (gitarra) lagun dituela aurkeztuko du.

► UZTAILAK 16, ASTEAZKENA

San Lorentzoko ermita aurrean / 19:00

'JAC ELECTRIC' taldearen kontzertua



Valentziarra sortzez, egun Bera eta Hendaia artean bizi den Jaime Alvarillos Correcher (JAC) blues abeslari eta gitarra jolea da taldeko arima. Iban Larrebour (bateria) eta Ritxi Salaberriarekin (baxua eta koruak) 'Now' diskoa. Blues-a oinarrian, baina rock eta pop-aren mugak ukituz.

► ABUZTUAK 31, IGANDEA

Errementari plaza / 12:30

'HIP HIP URA' kale ikusikizuna



TXALOKA taldearen eskutik, 'Hip hip ura' kale antzerkiak gozatzeko aukera izango dute 7 urtetik gorako haurrek. *Txipi*, *Txirla* eta *Txitxarronek* hondartzan gertatuko zaizkien xelebrekeriak partekatuko dituzte ikusleekin.

Jai egitarauaren azaleko irudia aukeratzeko lehiaketa



2025eko herriko jaietako egitarauaren azaleko irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du eta bakoitzak, gehienez, bi lan aurkeztu ahal izango ditu, formatu digitalean (Neurria: 280x480 mm, gutxienez, edo proportzionala; kolorea eta teknika libre; TIFF edo JPG formatuan, 300dpi-ko bereizmen minimoa). Ezinbestean agertu beharko da 'Oñatiko Jaixak 2025' testua. Lanak **uztailaren 10a** baino lehen aurkeztu behar dira **kultura.idazkaritza@onati.eus** helbidean.

BOZKETA

Kartel irabazlearen hautaketa internet bidezko bozketa bidez egingo da, **uztailaren 11tik 16ra**. Udalaren webgunean eta sare sozialen bidez zabalduko da esteka. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du.

Hots Abesbatzak 3. saria Gasteizen



Ekainaren 7an jokatu zen II. Gasteizko Abesbatzen Lehiaketan hirugarren saria eskuratu zuen Hots Abesbatzak, 40 emakumez osatutako taldeak. Aitor Biain-Bidartek zuzentzen duen abesbatzak —Amaia Zipitria pianu-joleak lagunduta abestu zuen—, gustura geratu zen egindako lanarekin eta, dagoeneko, hurrengo erronkara begira jarrita dago Hots, iraileko bigarren asteburuan Bulgariako *Varna* hiriko lehiaketan parte hartuko baitu.

Natxo de Felipe, Gorka Urbizu eta beste musikari batzuk Arantzazun

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Donostiako Musika Hamabostaldiko emanaldietako bat Arantzazuko basilikan izango da, abuztuaren 21ean, 19:00etan. 'Hariz harri' du izenburua, eta kontzertu berezia izango da, **Alos Quartet** taldearekin batera elkarrekin ikusi ohi ez ditugun belaunaldi ezberdinetako artistak ikusteko aukera izango baita, hala nola: **Natxo de Felipe, Gorka Urbizu, Olaia Inziarte** eta **Amorante**. **Iñar Sastre** piano-jolearen laguntza izango dute, eta **Amaia Elizaran** dantzan ariko da. Sarrerak salgai daude (20 eta 14 eurotan) Hamabostaldiaren webgunean (www.quincenamusal.eus).

Latzen eskenatokietara itzuliko da

Latzen Oñatiko metal taldea eskenatokietara itzuliko da uztailan. Zehazki, hilaren 19an emango du aurreneko kontzertua Zorrotzako gaztetxean, *Elbereth* legazpiarrekin batera, *Euskal Metalheads* jaialdiaren baitan. Eta astebete beranduago, uztailaren 25ean Lakuntzako *Hatortxu Rock* jaialdian izango dira oñatiarrak, *Su Ta Gar* eta *Koma* taldeekin batera, besteak beste. Hamazazpi urte igaro dira *Latzen* eskenatokietatik aldentu zenetik, eta beraien lehen maketaren 30. urteurrena betetzen den honetan bueltatzea erabaki dute kide berri batekin, Yerko Ortiz legazpiarrak beteko baitu Iker Martinez de Zuazok utzitako lekua. Disko berria aterako dute urtea amaitu aurretik.

'Iñaki bota daue' liburua argitaratu dute Pako Aristik eta Gure Bazterrak-ek



Iñaki bota daue (Erein) argitaratu du Pako Aristik Oñatiko Gure Bazterrak elkartearekin elkarlanean. 1975ean Kanpanzar gainean metrailatu zuten Iñaki Etxaberen hilketa da gai nagusia liburuan, baina aurretik eta ondoren izandako beste atentatu eta gertaera ere jasotzen dira bertan. Gogoratu, aurretik *Irunberri, 1980: Arroilaren negarra* ikerketa liburua ere plazaratu zutela Gure Bazterrak taldeak eta Urrestillako kazetari-idazleak. Urriaren 15ean aurkeztuko dute liburua Oñatin.

Boga tabernaren 30. urteurreneko jaia

Boga tabernak 30 urte betetzen ditu aurten, eta bezeroekin batera ospatuko du uztailaren 5ean. Aurrena bazkari herrikoia egingo dute taberna aurrealdean -150 lagun batuko dira-, eta, ondoren kontzertuak egongo dira talde hauekin: Osaba Kimu, Inguma, Hiru Haundiak, Akulu eta T.A.K.E. (Kaos Etiliko taldearen bertsioak).



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheko • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletelone.es

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (V)

Joanes artzaiña



 ROBERTO ALTUNA

Ha zan gizona ha!

Zazpi oin eta erdi bai luze, makal-zuraitzaren modura zuzen, pagorik senduena duin zabala, arte gogorra moduan tringo, korosti hezixaren antzera ximel.

Holakua zan Joanes nik ezagutu nebenian.

Senduak egozen orainddiok artzain zaharraren beso zaintsuak, azkarrak baiño azkarraguak bere oiñak, zintzuak bere bular-hauspuak.

Hirurogeita hamabi aldiz ikusi eben, Aloña mendiko hariztuittan, ostro berdian berriz jaixoten; baiña ez otsan eruango hemeretzi urteko mutil batek ez aizkol-jokuan, ez burdin astuna jaurtitten, ez mendixan gora edo ibarretan zihar atxintxika.

Kaiku haundi bat esne goizian jan, azpantarrez bernak estali eta makilla bat eskuan hartu ezker, prest eguen egun osuan, ariñena moduan, bihorren atzetik ibiltteko edo, neke askorik barik, ardi galdu gaixuaren billa gaba dana igaroteko.

Argixak ziran Joanesen begi gozuak. Ohittuta eguen Joanes zerura eta lurrera, gabaz eta egunez, arreta haundiz begiraketan, eta iñork baiño lehenago ikusiko eben, goi aldetik, hodei arteko arranuaren ibillera apaiña edo ixixa gizon danendako estalitta eguen izarraren kiñua, eta lurrian, lokatz bigunetako ganadu-oiñatza, bide ondotik fan ziran eperren aztarna, sasi mardularen ertzeko erbi-oin zapala, harkaitz zuluetahegasti harraparixen haabixia, eta han behe-behian agiri zan ulixa herriko erloju zahar eta illun samarra.

Erniak ziran Joanesen belarririk. Oso egiña eguen Joanes mendiko hots guztietara. Milla aldiz bai entzun zittuan, bakardadiaren erdixan jasarritta eguela, urriñeko justuixaren danbarraria, horeixaren burundaria, artzaiñaren diar luzia, aizkolarixaren aizkorakada neurtua; basaurdiaren arnasotsa, otsuaren alarua, aixaixaren zaunkia, bihorren irrintzixa, hontzaren ulua, basahuntz bilddurtixaren zalapartia; ganadu-arranen dulun-duluna, ardixen bee negartixa, suba zaharraren txistua, belaan garrazi latza, zozuaren txortxorra, txori kantari askoren txiotxo alaixa, errekatxuen pol-polla, zuraitz ostruen pir-pir biguna, eltxo gogaikarrixen zunburruntxua... berba gutxittan esateko, izakixak berez dittuen eta mendi basuetan diran ganadu, ipizti eta sortutako gauza danen akabera bageko soiñu txiki eta haundi, isil eta bizi, garratz eta gozo, mingarri eta eztitsu, pozkor eta ikaragarritzko danak. Berihela igarten otsan Joanesek nundik etorren soiñua, eta baita be esango eben argi eta garbi zer zan eta nun eguen soiñu bakoitzaren jatorri izkutua.

Berbategixa: *azpantar,-ra* = polaiña,-ia; *justui,-xa* = trumoe,-ia; *horei,-xa* = ekaitz,-a

Txomin Agirreren 'Garoa' nobelako zatixa, moldautakua.

AGENDA

EKITALDI BEREZIAK

UZTAILAK 4 / 22:00

TRIBIAL GAUA

Tribial jokoak. [Antixena](#) gaztetxean

IKUSKIZUNAK

UZTAILAK 9 / 19:00

'URA GARA BIDEAN' IKUSKIZUNA

Sagel musika taldea eta Oinkari dantza taldeko kideen eskutik. [San Martinen](#)

ABUZTUAK 31 / 12:30

'HIP HIP URA' KALE ANTZERKIA

Txaloka taldearen eskutik. [Errementari plazan](#)

MUSIKA

UZTAILAK 5 / Arratsaldean

BOGA TABERNAREN 30. URTEURRENEKO KONTZERTUAK

Osaba Kimu, Inguma, Hiru Haundiak, Akulu eta T.A.K.E. (Kaos Etilikoren bertsioak) taldeak ariko dira. [Boga aurrealdean](#).

UZTAILAK 16 / 19:00

JAC ELECTRIC

Oinarrian blues musika egiten duen taldea, baina rock eta pop-aren mugak ukituz. [San Lonretzoko ermita aurrean](#).

UZTAILAK 23 / 19:00

MIRIAM LUJUA

ETBko *Ztanda* saioa irabazi ostean grabatutako diskoa aurkeztuko du Miriam Lujua. Jazz, pop eta soul estiloak uztartzen ditu. [Lazarraga lorategian](#)

ABUZTUAK 21 / 19:00

'HARIZ HARRI', DONOSTIAKO HAMABOSTALDIKO KONTZERTUA

Alos Quartet taldearekin batera, Natxo de Felipe, Gorka Urbizu, Olaia Inziarte



'LUMINISCENCE'

Ganbara Abesbatzaren ahotsean

Bideo-mapping proiektzioak eta musika uztartuz Europako katedrala nagusietan milioi erditik gora ikusle liluratu dituen 'Luminiscence' ikuskizuna Donostiako Artzai Onaren Katedralean egongo da ikusgai udan, eta uztailaren 5, 10, 12 eta 18an, eta abuztuaren 21, 22 eta 23ko emanaldietan Oñatiko Ganbara Abesbatzak jarriko du zuzeneko musika. Bestalde, Ganbara abesbatzak Bakion (uztailak 14) eta Lekeition (uztailak 19) eskainiko du kontzertu bana, 20:00etan.

TRIANAKO JAIXAK

UZTAILAK 11: 19:00 Astotrastoren jaitsiera eta Totai-Boliviarrak pintxoak. Ondoren txorimalo eta erraldoiak; 19:30 Presoen aldeko elkarretaratzea; 20:15 4D/49 taldearen kontzertua; 22:00 Kontzertuak (Andutx. T.A.K.E. —Kaos Etilikoren bertsioak—, Bulkada eta DJ Galtzagorri). Ordu txikietan marrazki lehiaketa.

UZTAILAK 12: 12:00 Haurren marrazki saioa; 14:30 Auzo bazkaria eta llini kafea; 16:30 XLV. Mus txapelketa; 17:00 Ur-pistola gerra; 19:00 Txorimalo eta erraldoiak; 20:30 Erromeria ITZAL taldearekin; 23:00 Jarraipena. Ordu txikietan, zizka-mizkak + Phhotocall-a.

UZTAILAK 13: 10:00 Goiz eresia; 11:30 Musika banda auzoan zehar; 12:30 Musika bandaren kontzertua Goienako plazan; 18:00 Izaskun eta Xabi Sound-en ikuskizuna; 21:00 Xolonporen omenezko trakia.

eta Amorante ariko dira kantari. Iñar Sastre piano-jolearen laguntza ere izango dute. [Arantzazuko santutegian](#)

PINTXO-POTE MUSIKATUAK

UZTAILAK 10 / 19:00
BELLUM

MADALENAKO JAIXAK



UZTAILAK 18: 16:00 Auzolana; 16:30 Itxaflero jaurtiketa; 17:00 Bizikleta travesia (Merendia egongo da partaideentzat); 22:30 Kontzertuak (Lapur, Larru Beltzak, After Egurra ta Kitto).

UZTAILAK 19: 12:00 Auzolana; 14:00 Auzo bazkaria (Auzoko haurrentzako jolas parkea eta puzgarriak egongo dira); 17:00 MUS txapelketa; 22:30 Kontzertuak (John Dealer and The Coconuts, Oilar Beltzak eta DJ (sorpresa)

UZTAILAK 20: 10:00 Auzolana; 12:30 Mezia eta luntxa; Meza ondoren Oñatiko musika bandaren kontzertua. Itxaflero jaurtiketa eta zozketa.

Getariako punk taldeak, eta zehaztu gabeko beste talde batek girotuko dute pintxo-potea. [Antixena](#) gaztetxean.

UZTAILAK 17 / 19:00
OSABA KIMU

Oñatiko laukoteak girotuko du uztailako azken pintxo-potea. [Gaztetxean](#).

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

IYESTARAN
ARAIKUNTZAK S.L.

Aita Lizarralde, 8-Behea / 943716454 / iayestaran.com
obra berria / eraberritzeak / etxebizitzaren eraberritzeak /
igogailuak / kota 'O' lanak /
fatxada eta teilatuak

JAIXETAKO OHARRAK

TALO TABERNA

Herri Eguneko talo taberna kudeatu nahi duten herriko taldeek **uztailaren 14a** baino lehen eman behar dute izena: kultura.idazkaritza@onati.eus /943780353.

ARTISAU AZOKA

Herri Eguneko artisau azokan postua jarri nahi duten artisauak **uztailaren 13a** baino lehen egin behar dute eskaera www.onati.eus webgunean (HAZ trami-teak), edo **HAZ** bulegoan.

SALMENTA POSTUAK

Herri Egunean unibertsitate kanpoal-dean salmenta posturen bat jarri nahi dutenek uztailaren 18tik irailaren 12ra arteko epean egin behar dute eskaera www.onati.eus webgunean (HAZ trami-teak), edo **HAZ** bulegoan.



NAGUSIEN DANBORRADA

San Migel bezperako nagusien danbo-rradarako entseguak irailarekin batera hasiko dira. Larrañako kantxan izango dira ondorengo egun-orduetan:

- Irailak 10: 19:30 - 20:30
- Irailak 15: 19:45 - 20:45
- Irailak 17: 19:30 - 20:30
- Irailak 22: 19:30 - 20:30
- Irailak 24: 19:30 - 20:30 (*)

(*) Entsegu orokorra/azkena izango da, Larrañako futbol zelaian

ZALDI GAINEAN IRTETEKO

Tanborradan zaldi gainean irten nahi duten herritarrek izena eman dezakete ondorengo QRan aurkituko duten formularioa beteta.



ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gazteboak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Pelikula ikusienak

Uztaila eta abuztuan ez da zine emanaldirik egongo kultur etxeko zine aretoan. 2025ean hauek izan ikusle gehien batu dituzten filmak Oñatin.

HELDUAK

- Cónclave
250 ikusle
- The Brutalist
196 ikusle



HAURRAK

- Sonic 3: la película
177 ikusle
- Mufasa: El Rey León
158 ikusle



ZINE-KLUBA

- Aún estou aquí
117 ikusle
- La luz que imaginamos
104 ikusle



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16
Uztailak 2, 3, 11, 12 eta 13. Abuztuak 18, 20, 22, 23, 24, 26 eta 28.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22
Uztailak 4, 5, 6, 14, 15, 21, 23, 26, 27, 29 eta 31. Abuztuak 4, 6, 8, 9, 10, 12 eta 14.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58
Uztailak 7, 8, 16, 17, 18, 19, 20, 22, 24, 25, 28 eta 30. Abuztuak 1, 2, 3, 5, 7, 11, 13, 15, 16 eta 17.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28
Uztailak 9 eta 10. Abuztuak 19, 21, 35, 27, 29, 30 eta 31.

ODOL ATERALDIA

UZTAILAK 11 / 16:30-20:30
MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

LAN ESKAINTZA Coinbroker-Oñati bulegoko lantaldea sendotzeko pertsona baten bila gabiltza. Ez da ikasketa minimorik eskatzen, lanerako jarrera, oñatiarra izatea, euskaraz hitz egitea eta sektorean esperientzia izatea kontuan hartuko da. Bidali zure CVa: oinati@coinbroker.eus.

LOGELA BAT ALOKAIRUAN

Bi ikasle gara eta 2025-2026 ikasturterako pisukide baten bila gabiltza, pisua osatzeko. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta balkoia dauzka. Deitu: 699 36 66 07 edo 696 97 20 32.

SITSA OPARI Ardi sitsa doan eskaintzan da Gomiztegi baserrian. Norberak joan behar du jasotzera 688 689 725.

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

BEHAR DUZUN ZUNTZAK **OPARIA DAKAR**

- 300 Mb-eko ZUNTZA
- + 2 MUGIKOR-LINEA
- + 40 GB PARTEKATZEKO

29,90 €/HIL
BEZa barne

Eta dohainik eraman aire bidezko TRISTAR frijigailua edo baliza bat edozein mugikor + zuntza tarifa kontratatuz.



PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



(BEZa barne). Eta aukeratu bi opari hauen artean: aire bidezko frijigailua edo DGTk homologatutako baliza (2026ko urtarritetik aurrera derrigorrezkoa izango da). Uztailaren 31ra arte, eskaintzan kontratua baduzu: 300 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, dei mugagabeekin eta partekatze 40 GB-rekin, hilean 29,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existentziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO